DURANGALDEKO ALDIZKARIA
ANBOTO.ORG / TOKIKOM.EUS

25 anboto
GARENA KONTATZEKO

DA!

KULTURAREN JAIALDIA

Abenduaren 4tik 8ra bitartean, 61. Durangoko Azoka nobedadez beterik dator: ia 1.100 argitalpen aurkeztuko dituzte, eta 311 ekitaldi plazaratuko dira feriako zortzi guneetan. Gerediagako kideek azokara etortzeko eta gozatzeko dei egin dute.





TALAIA LANDAKOGUNEA

ABENDUAK 4

- **11:00 Euskarazko eduki sortzaileak. Ane Urrestirekin.** *Tailerra*
- **12:00 Euskarazko eduki sortzaileak. Ane Urrestirekin.** *Tailerra*
- **16:30 Isiltasunaren aldarria. Javier Buces, Maria Laespada, Irati Zuriarrain eta Iñaki Sanz.** Aranzadi Zientzia Elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Olibondoaren herria. Palestinako gatazka ulertzeko hamar gako. Markel Elortza.** Elkar. *Liburu aurkezpena*
- **17:30 Mende ilunak? Antzinate Berantiarreko baskoiak arkeologiaren argitan. Josu Narbarte.** Pamiela. *Liburu aurkezpena*
- **18:00 Frankismoa Francorik gabe Euskal Herrian. Javier Buces eta Unai Belaustegi.** Aranzadi Zientzia Elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **18:30 Herrigintzak merezi du. Tasio Erkizia.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **19:00 Ekologia pirata baten alde. Leire Mendiburu.** Katakrak. *Liburu aurkezpena*

ABENDUAK 5

- **11:30 Musika Berria plataformaren aurkezpena.** Berriako ordezkariak, Musika Berriako arduradunak, musikariak
- **12:00 Hitanoa lantzeko liburuxka eta aplikazioa.** Zirhika. *Aurkezpena*
- **12:30 Zergatik? Pentsatzen eta elkarrekin bizitzen ikasteko ipui bilduma.** Hik Hasi. *Liburu aurkezpena*
- **13:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Bonbereneak maite zaituzte. Bonberenea. Mahaingurua**
- **14:00 Heptamerona. Margarita Nafarroakoa (Itzultzailea: Xabier Artola).** Pamiela. *Liburu aurkezpena*
- **16:00 Panglosa, norentzat? Euskararen etorkizuna zientzia fikziotik.** Badalab, Pamiela. *Mahaingurua*
- **17:00 Behatxulotik. Juantxo Egaña eta Amagoia Mujika.** Gaur8. *Aurkezpena*
- **17:30 Auzolanaren lurretan. EHZ: 30 urtez zuzenean.** Elkar. *Liburu aurkezpena*
- **18:00 Hezitopia. Nora Salbotx.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **18:30 Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian. Jakoba Errekondo, Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebeste.** Argia. *Liburu aurkezpena*
- **19:00 Euskara borrokan bizi da.** Arteka (Gedar Langile Kazeta). *Mahaingurua*
- **21:00 Esperantza zoro batez. Sormen Beka DA! 2025 irabazlea. Ainhoa Olaso, Mikel Urdangarin eta Usue Egia.** *Aurkezpena*

ABENDUAK 6

- **11:00 Releer Amerikanuak: una antología a los cincuenta años.** EHU. *Liburu aurkezpena*
- **11:30 Kantari herriari. Pantxoa eta Peio.** Infernuko Zatak. *Liburu aurkezpena*
- **12:00 Gure klasizismo txikia. Oraina gerraurreko egitasmo kulturalen ispiluan.** Jakin Fundazioa. *Mahaingurua*
- **13:00 Elkarrentzat ikusezinak diren literaturak. Idazle katalanak, galiziarrak eta euskaldunak.** EIE. *Mahaingurua*
- **14:00 Montejurra 76.** EKA. *Liburu aurkezpena*
- **16:00 Filosofoa, txakurra eta ezkontza. Olatz Mitxelena, Ana Galarraga eta Iñigo Martinez.** 1545. *Liburu aurkezpen*
- **16:30 Mendien gainetik, Gernikako norabidean, distira gorri bat. Mikel Albisu eta Ibon Meñika.** IPES. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Ttunttuneroen gizartea. Xabier Itçaina.** UEU. *Liburu aurkezpena*
- **17:30 Jon Enbeita: Hausnarrean.** Labayru Fundazioa. *Liburu aurkezpena*
- **18:00 Bitoriano Gandiaga gogoan.** Labayru Fundazioa. *Mahaingurua*
- **19:00 Gure Herriko Zaporeak.** Hamaika Telebisa. *Egitasmo aurkezpena*

ABENDUAK 7

- **10:30 Sormen Beka DA 2026. Saritua iragartzeko prentsaurrekoa.** Gerediaga elkartea eta Durangoko Udala
- **11:00 Feminista elkartea. Aurkezpena**
- **11:00 Zientziaren uretan, irakurketa errazean.** EHU eta Irakurketa Erraza Euskadi elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **11:30 Turismoa: Desazkundera bidaia. Asier Basurto.** Argia. *Liburu aurkezpena*
- **12:00 Ategorrietan Fisterra. Lander Arbelaitz, Beñat Apalategi, Markel Ormazabal eta Malen Gainzarain.** Argia. *Aurkezpena*
- **12:30 Atsotitzen baratzean. Herri-literaturan errefrau-jorran. Adolfo Arejita eta Xabier Boveda.** Euskaltzaindia. *Aurkezpena*
- **13:00 Euskarazko wikipediak 25 urte. Eta orain zer?** Euskal wikilarien elkartea. *Mahaingurua*
- **14:00 ETA 1958-2018. Juantxo Egaña.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **16:00 Feminismoa eta hizkuntza minorizatuak. Lorea Agirre, Idurre Eskisabel, Maria Reimóndez eta Anna Gabriel.** Pol-len edicions. *Mahaingurua*
- **17:00 Izan zitekeena. Herri Batasuna eta espainiar trantsizioa. Gorka Etxebarria.** Alberdania. *Liburu aurkezpena*
- **17:30 Streaming aroa. Urtzi Urkizu.** Alberdania. *Liburu aurkezpena*
- **18:00 Boise. Diasporako hiru ipuin. Jose Angel Iribar, Nerea Ibarzabal, Xabi Paya eta Onintza Enbeitia.** Athletic Club Fundazioa. *Liburu aurkezpena*
- **19:00 Azken Marx. Biografia intelektuala (1881-1883). Gaizka Ugalde.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **21:00 Maitasuna ez da nahikoa. Mari Luz Esteban,** Itziar Garaluce eta Amorante. *Ikuskizuna*

ABENDUAK 8

- **11:00 Langileen Donostia. Jon Aldabaldetreku.** EHU. *Liburu aurkezpena*
- **11:30 Euskal zinema 2005-2025: Hasiera bat. Samara Velte eta Josu Martinez.** EHU. *Liburu aurkezpena*
- **12:00 Marruak bizitzari. Torturak feminismotik erreparatzeko jardunaldietako jasoketa bat.** Emagin elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **12:30 Joateko ere aske. Koldo Anasagasti eta Xabier Euzkitze.** *Liburu aurkezpena*
- **13:00 BAAI.EUS webgune-sortzailea, euskal AA-ren lehen inplementazio erreala.** Puntu.eus. *Aurkezpena*
- **13:30 Baserritar jantziaren sorrera eta bilakaera. Ane Albisu.** UEU eta EHU. *Liburu aurkezpena*
- **14:00 Amalurren kumeak. Nerea Balda.** Erroa. *Liburu aurkezpena*
- **15:30 Hezkuntza humanizatua. Irakasleen eta ikasleen ongizaterako gakoak. Begoña Garamendi.** Circulo rojo. *Liburu aurkezpena*
- **16:00 Ama, nik ez dakit marrazten! Logomedia proiektua. Alberto Uribarri.** Berez Haziku. *Egitasmo aurkezpena*
- **16:30 ¿Quo vadis, Ertzaintza? Ahoztar Zelaieta.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Llegan los cuervos. Belatz.** Txalaparta. *Liburu aurkezpena*
- **17:30 Zaldibarko berbeta eta literatura: Zalduko urak. Joseba Sarrionandia eta Gaizka Zabarte.** Pamiela. *Liburu aurkezpena*

anboto

ARGITARATZAILEA
Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua
Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa
Itziar Belar Zubizarreta.
Publizitatea
Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa
Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina
Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

PEFC: Inprimategia Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatuta da era Baso Kudeiketa Iraunkorraren inprimategia dauka www.pefc.es

LAGUNTZAILEAK

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR ZORNOTZA

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

"Azurmendi eta Davis antzeko lekuetatik ibili izan dira, geografikoki eta politikoki"

AINHOA OLASO SOPELANA ZINEMAGILEA



Mikel Urdangarin, Ainhoa Olaso eta Usue Egia.

Aritz Maldonado DURANGO

Usue Egia eta Ainhoa Olaso durangarrak eta Mikel Urdangarin gipuzkoarra *Esperantza zoro batez* proiektuaren azken txanpan murgilduta daude eta gogoz daude jendeak "liburua ikutu, begiratu eta eta zer iruditu zaien jakiteko. Komikia iazko Sormen Beka deialdian hautatu zuten eta Durangoko Azokan aurkeztuko dute. "Urte bakarreko lana da, baina azken txanpa hau luze egiten ari da", esan dute. Talaian aurkeztuko dute, abenduaren 5ean, 21:00etan.

Aurkezpen ekitaldi berezia prestatzen zabiltzate.

Komikiaren irudi mordo bat erakutsiko dugu, berbak, onomatopeiak... eta musika ere egongo da. Alde batetik, pertsonaiek abestu egiten dutelako, eta, bestetik, testuinguruan kokatzen lagunduko duten abesti batzuk sartuko ditugulako. Komikia bera bidaia bat da, Europatik batez ere, baina AEBetako New York ere bisitatzen da. Espazio batzuei kanta batzuk ipiniko dizkiegu eta Miren Narbaiza musikaria laguntzen ari zaigu ekitaldian hori erakusteko. Mikelek eta biok istorioa kontatuko dugu, espoilerrik egin barik (barrez), eta bien bitartean Usuek marrazki batzuk egingo ditu zuzenean.

Joxe Azurmendi Angela Davisegaz eta hainbat pentsalari feministagaz batu duzue. Zelan konpondu dira elkarregaz?

Zehaztu gura genuke ez dela pentsalari horien guztien pentsamendua jasotzen duen komiki bat. Gehiago kontatzen dugu, Azurmendiren eta Davisen arteko lotura bat. Gurutzatzen diren bizitza paraleloek osatzen dute istorioa. Kontua da Joxe eta Angela antzeko lekuetatik ibili izan direla, bai geografikoki bai ideologikoki, eta istorioa pertsonaia bi hauen krisietatik abiatzen dugu. Aita lan-istripuan hil zitzaion Azurmendiri, bera Arantzazuko monasterioan ikasten ari zela, eta horrek zalantzan ipintzen du bere sinismena. Bestalde, Angela Davis umea zela, Ku Klux Klan familia beltzen aurkako erasoak egiten hasi zen. Beraz, bien krisi existentzial horiek abiapuntu hartuta, bidaia bat planteatzen da. Egiatik hartu ditugu gauza asko, baina errealismo magikora ere eraman ditugu beste batzuk, edo fikzionatu egin ditugu beste batzuk. Simone de Beauvoirregaz Parisko galerietan arropa probatzen ipini dugu, adibidez.

Erronka handia izan da hain gai intelektualak umorera ekartzea?

Elkarregaz lan egin eta dibertitzeko modu bat izan da, eta estilo fanzineroa emateak erraztu egin du bidea. Usueren marrazkiak guztiz bat datoz tonu horretan. Ez genuen saldu gura Azurmendi pentsalari mardularen eta Davis militante zurrunaren istorio legez; errespetua galdu barik, baina beste zeozer egin gura genuen. Adibidez, animaliak erabili ditugu, pertsonaien inguruan beste ahots batzuk sartzeko. Tonu horregaz gustura ibili gara, umorea egiteko aukera izan dugu, sinplekerietan ez jausten ahaleginduta.

% 100
URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

"Zaldibarko euskaldunok geure historia ezagutzeko aukera bat da 'Zalduko urak'"

GAIZKA ZABARTE LASUEN IDAZLEA



Gaizka Zabarte, ospitaleko kaperan.

Aritz Maldonado ZALDIBAR

Gaizka Zabartek eta Joseba Sarrionandiak Zaldibarko euskararen eta biztanleen memoria errekuperatzeko ariketa egin dute. *Zaldibarko berbeta eta literatura: Zalduko urak* liburuan, dozenaka zaldibartarren testigantzak batu dituzte. Irakurleak, bertakoa izan ez arren, bere egingo ditu liburuko gaiak, unibertsalak dira eta. "Ehun bat zaldibartarren testigantzak batu ditugu eta liburuak Zaldibarko azken 130 urteetako euskarazko ondarearen edo munduaren argazkia erakusten du".

Joseba Sarrionandiak antzeko ariketa egin zuen lurretan 'Sator hegalariak' liburuagaz.

Kubatik bueltatu zenean, Josebak ideia hau zekarren buruan, herrietatik hasita eskualdeko proiektu bihurtzeko. Iurretakoa orain urte bi kaleratu zuten eta Durangaldeko hainbat herritan martxan da, batzuk beste batzuk baino aurreratuago. Euskararen ondarea batzea izan da asmoa, bertako euskaraz edo euskaraz sortu den guztia azaleratzea, euskal mundu hori azaleratzea, zelanbait. Mundu hori oso zabala da, denerik hartzen du barne, bai kronologia aldetik bai estilo aldetik, adibidez. Hortaz, alde batetik herri bakoitzeko antologia moduko bat da, herrian ekoitzi dena batzen du, eta berariaz libururako idatzitako testu batzuk ere badaude. Helburua euskarazko ondarea batzea zen, baina gero, liburua bera erakargarri eta entretenigarri egiteko erronka ere izan dugu. Funtsean, azken 130 urteetako produkzioa jasotzen du.

Eta zergaitik 'Zalduko urak'?

Peñafloridako konteak herriko urgazi sendagarriak, denon eskura zeudenak pribatizatu, eta bainuetxe bat egin zuen. Horregaitik ekarri zuten trena 1886an, eta horrek lehenengo industrializazioa ahalbidetu zuen. XIX. mende amaieran Madriltxiki deitzen zitzaion herriari. Urgaziek protagonismo berezia dute liburuan, Zaldibarko historian izan duten moduan.

Belaunaldi desberdinetako zaldibartarren lekukotzak batu dituzue.

Bai, ehun bat lagunen testigantzak batu ditugu. Abiapuntua XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera da. Herri guztiz euskaldun batetik abiatzen gara, gaur egunera arte; praktikoki, baserritar herri bat zenetik herri industriala den honetara; herri guztiz euskalduna zenetik, gaur egungo ez guztiz euskaldun honetara. Belaunaldi desberdinak batu ditugu, eta urte horietan, modu batera edo bestera, euskara beti egon da zapalduta, baztertuta edo desprestijiatuta. Aldi berean, jende askok aurre egin dio egoera horri, iraunkortasun bat izan dute, erresistentzia bat egon da, eta horren lekuko ere bada liburua.

Hori ez zen Zaldibarren bakarrik gertatu.

Ez. Gai unibertsalak dira, esan dudan moduan. Zaldibarko kulturaz eta politikaz ere berba egiten da, Valentin Lasuenek eta Jose Luis Mendilibarrek adibidez. Jende askori arduratzen zaizkion gauzez berba egiten da: biziraupena, aterpea, hartu-emanak, nortasuna... Horiek Zaldibarren hartu duten forma konkretua batu dugu. Iurretan ere antzekoa esan daiteke, ezta?

Zaldibarren bertan egin zenuten aurkezpena.

Bai, eta jende askok parte hartu zuen. Esango nuke jendea oso pozik dagoela. Sentsazioa daukat Zaldibarko euskaldunok geure historia ezagutzeko aukera bat dela; zer egon den ikusteko balio du, eta zelanbait, gure autoestimua apur bat igotzeko ere bai.

RPS: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#SALDU ENAK

1t NEGUBERRIA
Ekaitz Herrera
Elkar

2t ORTUPOEMAK
Leire Bilbao
Pamiela

3t BEILA
Peru Magdalena
Baleia Zuria

4t ZALDIBARKO BERBETA ETA LITERATURA: ZALDUKO URAK
Joseba Sarrionandia
Zabarte, Gaizka
Pamiela

5t SORBATZA
Markel Sanchez
Elkar

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
ofizinako telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 646762022
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

UNAI GARAY
ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

Anboto
TABERNA • JATETXEA
Goienkale kalea, 14
Durango - Tel.: 946 811 020

"Poesian eta ortuan, erein eta itxaron egin beharko duzu, baina esker onekoak dira"

LEIRE BILBAO BARRUETABEÑA IDAZLEA

Aritz Maldonado DURANGO

Leire Bilbao idazleak urtero aurkeztu du nobedaderen bat Durangoko Azokan. "Festa" legez bizi du azoka, "aspaldiko lagunekin egoteko hitzordu" legez. Aurten lan bi aurkeztuko ditu Landako Gunean: Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz aurkezten duen *Musu bete urte*, eta Yolanda Mosquera ilustratzaileagaz batera ondu duen *Ortupoemak* liburua.

Nondik heldu zaizu 'Ortupoemak' idazteko grina?

Lurragazko lotura galtzen gabiltza. Geroago eta gutxiago begiratzen diogu, geroago eta gutxiago zaintzen dugu, eta, horregaz batera, lurragaz loturiko esamolde, esaera zahar eta atsotitz asko ere galtzen gabiltza. Lehen oso ohikoa zen esatea, adibidez, 'porru egin da utzi nauzu', 'piper egin dut eskolatik' edo 'gereziak gabonetan', zeozer lortzea gatx zenean. Gure hizkuntzan lurragazko esamolde horiek galtzen dabiltzan neurrian, niretzat erronka eta jolasa izan da bizidun horiei berba emateko. Jakin badakigu animaliak elkarregaz komunikatzen direla, baita zuhaitzak eta landareak ere, zuztarren bitartez. Euskal ahozko literaturan hainbat istorio dugu,



Leire Bilbao.

ardien eta belarraren artekoak, adibidez, gure aitita-amamengandik jaso ditugunak. Galtzen edo ahazten joan den iruditeria bat dago hor, ez delako erabili, eta nik gaur egungo ahotsa ipini gura izan diot, elkarren arteko komunikazio horretan elkarrizketa batzuk sortuta. Ortu oso bat egin gura izan dut, eta bertako landareen, animalien eta munduaren arteko kontu sekretu horiek bistaratu, era ludiko eta jolasti batean, poemen bitartez.

Desagertzen dabilen mundua da?

Askotan begirada kontu bat da. Beste mundu hori hor dago, begiratzen eta zaintzen duzun bitartean. Ikusten ez denari ere ahotsa ematea da kontua. Umeek badute gaitasun hori irakurketa edo entzuketa aktiborako, begirada horri adi eusteko, eta hor dago jolasa. Ortua zaintzeko gonbidapena da liburu hau.

Ortuak eta poesiak, biek eskatzen dute denbora eta dedikazioa.

Poesiak eta baratzeak antzekotasun bat dute: erein eta denbora batez itxaron egin behar duzula bietan. Gero, sasoian sasoikoa azaleratuko da. Denboragaz eta zaintzagaz egiten diren gauzak esker onekoak izaten dira gero. Norberak ematen diona baino gehiago jasotzen du bueltan. Noiz? Ez dakizu, baina lurra eta poesia eskuzabalak dira alde horretatik.

Zelan Mosqueragaz lanean?

Itzal itzela deitzen zen liburua ere elkarregaz ondu genuen. Bigarren honetarako gonbidapena bidali eta segituan eman zidan baiezkoa. Esango nuke liburu ilustratuetan oso garrantzitsua dela ilustratzailearen eta idazlearen arteko elkarlana: idazleak esaten ez dituenak ilustratzaileak esaten ditu. Poema bat irakurtzerakoan, norberak bere irakurketa egiten du, eta kasu honetan Yolandak oso ilustrazio ederrak egin ditu, nik aipatzen ez ditudan pertsonaia batzuk ekarrita. Bere ilustrazioek, azken finean, beste istorio bat kontatzen dute, narrazio propioa dute.



"Negarra, txaloak eta esker ona jaso ditugu dokumentaleko kideen partetik"

HAIZEA BEDIALAUNETA GARCIA 'ANDRAK ERRAMUTAN' DOKUMENTALAREN EGILEETARIKO BAT



Haizea Bedialauneta.

Ekaitz Herrera IRUDIENEA

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasitako lau kidek, tartean Haizea Bedialauneta Garcia elorriarrak, *Andrak Erramutan* dokumentala aurkeztuko dute Irudienean. Arraun talde bat da Andrak Erramutan, Ondarroako 45 urtetik gorako emakumeek osaturikoa, eta 2024an hasi zuten bidea, Ondarroa-Donostia-Ondarroa ibilbidea arraunean lotu zutenean. Bedialaunetak eta gainerako kideek iruditan jaso zuten balentria hura, eta dokumental labur bat ekoitzi zuten. Aurten bigarren dokumental bat egin dute, eta horixe da, hain zuzen ere, Irudienean aurkeztuko dutena, Andrak Erramutan taldearen bigarren balentria, Bizkaiko kostaldean egin dutena.

Zelan sortu zen dokumentala egiteko ideia?

Ama ondarroarra da eta arraun talde horretan dabil. Egun batean bideo bat grabatzeko eskatu zidan, eta taldeak diru laguntza bat lortu zuenean dokumental txiki bat egitea proposatu zidaten. Bakarrik ezin nuenez egin, unibertsitateko lagun batzuekin taldea osatu nuen. Fakultatean elkar ezagutu genuen, baina esparru akademikotik kanpoko proiektu bat da.

Nortzuk dira Andrak Erramutan?

45 urtetik gorako 62 bat emakume dira. Gaztetan, gehienei ez zieten itsasoan eta kirolean aritzeko aukerarik eman. Portuko lan ikusezinetan aritzen ziren, sareak josten eta halako beharrak egiten. 2018an Orioko emakumeen proiektu bat ezagutu zuten; hango 40 urte bueltako emakume talde batek Orio-Bilbo-Orio zeharkaldia egin zuen. Zeharkaldi hartan oriotarrek geldialdi bat egin zuten Ondarroan, eta bertako batukadako emakumeek harrera egin zieten. Orduan, batukadako emakumeei arraunean egiteko gogoa piztu zitzaien. Kirola egiteko, elkar ezagutzeko eta hartu-emanak josteko modu bat topatu zuten. Eta halaxe, 2024an egin zuten lehenengo erronka.

Balentria bi jaso dituzue iruditan, eta bigarrena da Irudienean aurkeztuko duzuen lana.

Lehenengo erronkan Ondarroatik irten, Orion hango emakumeak omentzeko geldialdia egin, Donostian lo egin, eta Zumaiatik eta Mutrikutik pasatu ondoren etxera bueltatu ziren emakumeak. Horregaz dokumental labur bat egin genuen. Aurten, bestalde, Bizkaiko kostaldea zeharkatu dute: Ondarroatik Bilbora joan ziren zuzenean, biharamunean Bilbotik Bermeora, eta azkenik Bermeotik Lekeitiora eta Ondarroara. Bigarren hau da, hain zuzen ere, Durangoko Azokan aurkeztuko dugun dokumentala. Lehenengoan erronkak emandako poza erakutsi genuen, baina bigarrenean atzeko lan itzela ere islatu dugu, alde humanoa. Izan ere, kirolari izateaz gainera, emakume hauek ama, alaba eta langile izaten jarraitzen dute, zaintza lanak egiten dituzte etxean.

Protagonistek zelan hartu dute dokumentala?

Negarra, txaloak eta esker ona jaso ditugu. Beti esan digute gu ere taldeko parte garela, eta grabazioetan zein edizioan babes handia eman digute. Guk zuzendu dugu lana, baina ez gara ezer eurak barik.

Ahalduntzerik igarri duzue euren berbetan?

Bai, zalantzarik barik. Gogoan dut nire amari herrian bertan esaten ziotela ez zuela lortuko. Erronka amaitzean, arraunlari askok esan zuten: "Aho asko itxi ditugu".





Webgune berri bat,
prest eta martxan,
hilean 15 eurogatik?

BAAI!



BAAI PUNTU.EUS

EGIN PROBA DOAN

BAAI.EUS

IRUDIENEA

ABENDUAK 4

- **10:30 Demasa. Ikus-entzunezko rallyetako finalisten emanaldia.** *Film emanaldia*
- **10:30 Pantailak Euskaraz. Eduki eta kontsumo digitalean hizkuntza ohiturak aldatzen.** *Tailerra*
- **14:30 Dekoratua. Alberto Vazquez.** *Emanaldia*
- **16:30 Anarru egune. Zuberoa Andres Mendizabal.** *Dokumentala*
- **17:30 Goiztiria. Oskar Aranzabal Iraeta.** *Dokumentala*
- **19:00 Bate batea, andrak! Ane Urresti Lekube.** *Dokumentala*
- **19:45 Zisne Beltzak. Iban del Campo.** *Film emanaldia*
- **20:15 Txakun Txakur. Elsa Oliarj-Inès.** *Aurkezpena*

ABENDUAK 5

- **11:00 Errigora: sustraitik espaziora. Errigora.** *Dokumentala*
- **12:00 Lehen Aldiz telesaila. Jone Arriola.** *Aurkezpena*
- **12:30 Txalupa mutila eta esperantza. Josu Ozaita.** *Emanaldia*
- **13:30 Odol Ilargia. David Losada.** *Emanaldia*
- **14:30 Gatibu, agur esan barik. Jabi Elortegi.** *Aurkezpena*
- **15:30 Hatortxu Rock.** *Auzolanean ekoitzitako dokumentala*
- **17:00 Gozategi plazan. Iban Gonzalez eta Baleuko.** *Dokumentala*
- **18:30 Iñurri Itsuak. Igor Legarreta.** *Emanaldia*

ABENDUAK 6

- **11:00 LaburmetraDA! Antzezlan klasikoa, Inoiz ez, Anai, Berpiztu eta Beste ni hori.** *Film laburren emanaldia.*
- **12:00 LaburmetraDA! Marketan, Ispiluak Zeharkatuz eta Pepa film laburren emanaldia.** *Emanaldia*
- **13:00 Gau Beltza. Taupa, euskaltzaleen mugimendua eta Labrit multimedia.** *Aurkezpena*
- **14:30 Winnipeg, itxaropenaren ontzia. Dibulitoon studios.** *Emanaldia*
- **16:30 Bigarrenez Aresti, etorkizunaren aurrean. Ekida arte ekimen sozialista.** *Emanaldia*
- **18:00 Bertsolaritza: denboraren joanean irauten. Berria.** *Emanaldia*
- **21:00 Oraingoz izen gabe. Jose Julian Bakedano.** *Emanaldia. (Sarrerak txarteldegian)*

ABENDUAK 7

- **11:00 300 Haritz. Mahaia Kolektiboa.** *Dokumentala*



DURANGOKO AZOKA

- **12:30 Loa eta Laia 5.denboraldia. Josu Bergara eta Paul Caballero.** *Aurkezpena*
- **14:30 Ochiren Legenda. Isaiah Saxon.** *Emanaldia*
- **17:00 Euskarazko film laburrak. Joare tte, Hemen gaude, Aho beltza, Bitartean gero, Mintzo zen, Ikusi Makusi.** *Emanaldia*
- **19:00 LaburmetraDA! Zezena eta Umea, Potasio, Exodus.** *Emanaldia*

ABENDUAK 8

- **11:00 Andereño Luisa Mardaraz gogoratzen. Marisa Barrena Larruzea, Josi Sierra Orrantia.** *Dokumentala*
- **12:30 Eguneroko legez. Julen Duhau Larrañaga.** *Emanaldia*
- **13:00 Antzarra zerumugan. Xabier Villalba. Traola.** *Dokumentala*
- **15:00 Itzalak argitzen. Koldo Almandoz eta Gorka Bilbao.** *Dokumentala*
- **17:00 Demasa. Bideo rallyetako irabazle eta finalisten arteko lehiaketa. Taupa, euskaltzaleen mugimendua.** *Lehiaketa*

ESKAINTZA IZARRA
Sofa eraisgarria + 135 x 190 zm-ko koltxoi biskoelastikoa.
395 €
(33 € hilabetean)
12 hilabete interesik gabe
Eramatea, muntatzea eta altzari zaharrak kentzea DOAN
Colchonerías Bengoa
www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com
Frai Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662

Artisau eta nekazari azoka
Animatu bertakoa dena ezagutzera!
Abenduak 6
atxondo





Irudieneak Zugaza zinema du aterpe.

Irudienea, euskarazko ikus-entzunezkoen eta zinemaren eskaintzaren lagina

Irudienea guneak 47 emanaldiko programa izango du aurten Zugazan

Aritz Maldonado DURANGO

Irudienean, euskarazko ikus-entzunezkoei eta zinemari eskainitako eremuan, 47 emanaldi egongo dira aurtengo Durangoko Azokan. Hain zuzen ere, Andoni Urzelai guneko koordinatzaileak eskaintzaren ugaritasuna nabarmendu du. Dokumentalak, film laburrak eta film luzeak emango dituzte Zugazan abenduaren 4tik 8ra bitartean. Besteak beste, musikagaz lotura estua duten lanetariko batzuk nabarmendu ditu Urzelaik. Hogeita bost urte oholtzarik oholtza eman eta gero, iaz ibilbidea eten zuen Gatibu talde gernikarraren agurra jasotzen duen *Gatibu, agur esan barik* lana proiektatuko dute abenduaren 5ean; Jabi Elortegik ondu du lana, eta, besteak beste, 2025eko abenduaren 13an Barakaldoko BECen emandako agur kontzertuko irudiak erakutsiko dituzte. Gozategi taldeak ere dokumentala kaleratu du, *Gozategi plazan*, 35 urteren ondoren ere plazarik plaza jarraitzen duela ospatzeko. Iban Gonzalezek eta Baleukok ondu dute erromeria talde mitikoaren ibilbidea laburtzen duen lana.

Beste alde batetik, film luzeak ere emango dituzte. Abenduaren 5ean, Igor Legarretaren *Iñurri itsuak* fikziozko lan luzea proiektatuko dute Zugazan; ikusleei ezagunak egingo zaizkie pantaila handian agertuko diren irudietariko asko, izan ere, eszenetariko batzuk Abadiñon eta Elorrion grabatu zituzten.

Lucia Urigoitia, pantailan

Irudieneak emango dituen ikus-entzunezko lanen artean, Otxandioko Lucia Urigoitia *Lutxi* zena protagonista duen *Lutxi eta zuhaitza* dokumentala dago. 1987an Pasaian (Gipuzkoa) Guardia Zibilaren eskuetan egoera nahasian hildako ETAkidea zen Urigoitia. Lander Garrok zuenduriko lanak haren inguruko istorioa eta auzia kontatzen ditu; Olaia Aguayo, Xabi 'Jabato' Lopez, Alain Lersundi, Joserra Fachado, Aitor de Kintana eta Garazi Urkola dira aktoreak. Abenduaren 6an egongo da ikusteko aukera, 16:00etan.

Urzelaik nabarmendutako beste lanetariko bat *Denboraren joanean irauten* da. "Aurten ere bete-beterik dator Irudienea, askotariko eskaintzagaz. Hausnarketarako guneak ere badira hauek, eta horrela izango da Irudienean ere", azaldu du. Adibidez, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren harira sorturiko dokumentala ere emango dute; bertsogintzaren gaiei, bertsolaritzaren plazei eta etorkizunari buruzko hausnarketak planteatzen dira bertan. Abenduaren 6an proiektatuko dute. Eta film laburrei ere toki berezia gordeko diete Irudienean. Zenbait autoreren lanak erakutsiko dituzte LaburmetraDA! ekitaldian. Hain zuzen ere, *Marketan* (Iñaki Agirrezabala, Malen Trenado eta Ander Beizama), *Ispiluak zeharkatuz* (Ainhoa Alberdi) eta *Pepa film* (Unai Gerra) film laburrak estreinatuko dituzte.



"Lehenengo lanak ikuspegi pertsonalagoa zuen; bigarren honek, sozialagoa"

IGOR ELORTZA ETA MATXALEN ERZILLA ANONYME POPULAR

Lehenengo diskotik lau urtera, bueltan da Anonyme Popular. Izen durangar bat batu da Igor Elortzaren eta Rafa Ruedaren proiektura: Matxalen Erzilla

Ekaitz Herrera MUSIKA

Anonyme Popular esatari-abeslari oreka horretan bueltatu da bere bigarren disko-liburuan (Inor #2), *spoken word* deritzon ahozko artefaktu musikatuan. Igor Elortzak euskal gizarte garaikidea ziztatu du, eta haren barrenak atera ditu argitara. Kritiko eta hausnartzaile batzuetan, jostari eta ironiko beste batzuetan. Rafa Ruedak eta Matxalen Erzillak jantzi dituzte bere berbak.

Diskoa entzun eta gero, Anonyme Popular 2ren definizio posible bat etorri zait burura: "Mundu modernoaren ajeak kontatzea, zuk diozun eran, '*selfie* bertsolaritzan'.

I.E.: Izan liteke definizio posible bat. Gaur egungo giroari buruz gabiltza, eta askotan diot proiektua ahozko kultura garaikidean kokatu daitekeela. Izan ere, tematika aldetik hori dago, ezta? Gaur egungo giroa. Aurreko lanean *ni* gehiago zegoen, bertakotasun gehiago, euskal giroa. Bigarren hau horren garapena dela esango nuke. Aurreko ideiek jarraikortasuna daukate, baina iruditzen zait ikuspegia ez dela hain pertsonala, sozialagoa baino. Euskal Herria gehiago kokatzen da munduan eta orainaldian. Iraganari begirada bat eta aurrera begirakoak ere badaude. *Selfie* bertsolaritzarena ironia da, gaur egun dena delako *selfie*.

M.E.: Igorrek hasierako grabazio bat bidali zidan kantak entzuteko eta zer-nolako konponketak sartu nitzakeen ikusteko. Proposamena gustatu egin zitzaidan. Abesti desberdinak ikusi nituen, askotariko melodiak. Kanta batzuek etxeko musikaren ezaugarriak dituzte, euskarazko betiko melodiak, baina gero badaude nik normalean kontsumitzen ez ditudan musikatik haragoko doinuak.



Matxalen Erzilla eta Igor Elortza.

Erronka izan da?

M.E.: Bai. Gainera, Igorrek beste instrumentu batzuk jotzeko ere xaxatu nau! (barrez). Mikrofono baten aurrean, eszenatokian, ez dut inoiz abestu, eta paper printzipalik ez daukadan arren, abeste hutsa erronka izan da.

"Izan ote da garai hoberik lehenago" galdetzen duzu lehenengo kantan, eta bigarrenean "Orain da inoiz biziko dugun garairik onena" baieztatzen duzu. Zalantzak, itxaropena... dualitate hori dago diskoan?

I.E.: Txanpon beraren alde biak direla esan daiteke. Lehenengoa luzea da, berba asko dago, arin doa, eta modu intentzionatuan batzen du gaur egungo egunerokotasuna. Telefonoa, irratian entzundakoak, akontezimenduak. Desosegu hori. Eta gero, bigarren kantagaz, sosegu apur bat bilatu dut. Forma aldetik koplak dira, berba gutxi dago, eta kanta poperoa da. Gaur egun oso ilun ikusten dugu dena, baina ez dakit hori pentsarazi gura diguten ala benetan horren txarto dagoen mundua. Beraz, bigarren horretan beste era batera begiratu gura nion inguruari, behintzat umore apur bategaz. Ematen du zuri edo beltz dela dena, baina tartean grisak eta koloreak daude.

Beste kanta batean 80ko hamarkadako erreferentziak daude, eta beste batean "Berrogeita askoko gizontxoak gara, aspalditxo joan zen gure hamarkada" diozu. Nostalgia ere badago?

I.E.: Lehenengoa, *Eta hamar eta abar*, 80ko hamarkadatik honako memoria ariketa bat da, pertsonala izateaz gainera kolektiboa ere izan daitekeena. Kanta apur bat serioa, orainaldian kokatzeko baliagarria. Bestea, *Gizontxoak*, ironikoa da. Rafa Rueda eta biok berrogeita askoko edo jada 50 urtetik gorako gizontxo bi garelako! (barrez). Pozik bizi dut aro hau. Azken 15-20 urteotako feminismoen indarraldiek gauza on mordoa ekarri digute, gauza batzuk aldatzen hasi dira, eta gizonok prest egon behar dugu posizio, pribilegio edo botere batzuk galtzeko. Orduan, horren gaineko kanta ironiko bat da, letra eta forma ironikoak dituena. Izan ere, XX. mendeko gizonak izateko hezi gintuzten, eta XXI. mendeko gizartean horrek 'deskoloke' batzuk eragiten dizkigu. Hausnarketa eta umorea bilatu ditut.

Matxalen, 'Itzartu nahian' abestian zure sokek presentzia handia dute. Akaso horixe izango da diskoko atalik sentikorrena.

M.E.: Bai, oso kanta intimoa da, eta soinu aldetik akustikoagoa. Biolontxeloak paper bi ditu. Batetik, atal erritmikoa dago, pizzicatoen presentzia hori daukana. Bestetik, melodiak sartzen ditudanean, esaldi batzuk josi ditut arkuagaz. Polito geratu da.

Zuzenekoetan zer ikusiko dugu?

I.E: Orain artekoen antzekoak izango dira. Logela Multimediako Imanol Garaizabalek ikus-entzunezkoak, argiztapenak, atrezzoa eta planteamendu estetikoa ondu ditu. Horrenbestez, berba taularatuaren ikuskizuna izango da, ikus-entzunezkoekin eta zuzeneko musikagaz lotuta. Berbak gorpuzteko momentua izango da, garai honi ipinitako berba, soinu eta irudiak jendeagaz partekatzeko momentua. Elorrioko Arriolan hasiko dugu bira, urtarrilaren 22an. Emanaldia 20:00etan izango da eta sarrerak eskuragarri daude jada. Maiatzaren 15ean Durangoko San Agustin Gunean egongo gara.



"Gizarteak eta administrazioak ulertu behar dute artisautza kultura dela"

INTZA OLABARRIA LEJARZA ETA AGURTZANE UGALDEA MUNITXA EIXU ELKARTEKO KIDEAK

A.B. ELORRIO

Durangaldeko Eixu artisau elkarteak urteurren borobila du aurten. Hamarkada bat da bidea egiten hasi zela, eta hamarkada bat beteko du baita ere elkarteak Durangoko Azokagaz batera antolatzen duen artisau eta sortzaileen azokak. Andra Mariko elizpea dute elkargune, eta aurten, lehenengoz, 30 bat artisau daude gonbidatuta.

Agurtzane, sorrerako urteak gertutik bizi izan zenituen. Zer beharrizan zegoen elkartea sortzeko?

Agurtzane Ugaldea: Ez naiz artisaua, artista naiz gehiago. Dena dela, Eixu elkartea artisautzan zebilen zenbait sortzaileren ekimenetik jaio zen, haien lanak erakutsi eta saltzeko lekuak falta zirela ikusita irtenbide onena izan zitekeelakoan. Elkarte batean batuta, indar gehiago lortuko zutela uste zuten, babestuago sentituko zirela. Elkartea urrian jaio zen eta lehenengo azoka bizkor-bizkor antolatu zuen, Elorrion. Segituan Durangokoa etorri zen, ia kasualitatez. Artisauak, sortzaileak, laguntza ekonomikoa eskatzen duten plataforma eta elkarteak... denak batera egon ginen lehenengo urte hartan.



Intza Olabarria eta Agurtzane Ugaldea.

Orain, beste antolakuntza mota bat dugu, zainduagoa.

Urteotan zelako garapena izan du azokak?

A.U.: Azoka sendotzen joan da, profesionalizatzen zelanbait esateko. Lan handia eskatzen du, baina polita da ikustea pausoak ematen gabiltzala. Artisaua babestu eta mimatu egin behar dela uste dugu, jakinda bestelako jarduerak ere oso errespetagarriak direla. Badakigu artisau bakoitzak bere ibilbidea duela, eta desorekarik egon ez dadin ahalegintzen gara, ahal den neurrian denei lekua eginda. Bide horretan lanean jarraitzen dugu, oraindino egiteko asko dagoen arren.

Intza Olabarria: Denok miresten ditugu erakustokietako artisau-lanak, baina atzean dagoen lanari bere balioa eman behar zaio. Horretarako, artisautza babestu eta zaindu egin behar da.

Administrazioen babesa falta dela diozue.

A.U.: Bai. Gizarteak eta instituzioek ulertu behar dute artisautza kultura dela, ez garela saltzaile hutsak. Azokak ez dira bakarrik herria apaintzeko zeozer. Administrazioek azokak babesteko eta indarra emateko neurriak hartu ditzakete.

I.O.: Eskuekin sortzen den kultura da artisautza. Ez gara atrezzo soilak, gure lana da.

Durangoko Azokako egunak garrantzitsuak dira zuentzat?

A.U.: Oso garrantzitsuak. Oso ondo saltzen dugu, eta Euskal Herriko hainbat lekutako jendeak ezagutzen du gure lana.

I.O.: Hala da, bai. Durangoko Azokako egunekin hasi eta erregenetara arte lan handia dugu.

Hamar urte hauetan baduzue momentu bereziren bat gogoan?

A.U.: Denerik egon da. Oso pasarte politak bizi izan ditugu, eta une deserosoak ere bai.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

I.O.: Administrazioetatik babes handiagoa lortzea, eta azokari dagokion lekua ematea.

A.U.: Bestalde, Durangok merezi duen gabonetako azoka duin bat sortzea gura genuke.



"Euskararen erabilerari dagokionez, sasoi hartarako film aitzindaria egin genuen"

JOSE JULIAN BAKEDANO SARRIONANDIA ZINEMAGILEA


Jose Julian Bakedano, Durangoko Hitz liburu dendan.

Ekaitz Herrera DURANGO

Irudieneak euskal zinemagintzaren altxor bat proiektatuko du abenduaren 6an: *Oraingoz izen gabe*. Jose Julian Bakedanoren filmean, Durangaldeko aktore gazte bi anaiak dira fikzioan, Iro Landaluze eta Felix Arkarazo. Lau hamarkada geroago berriro proiektatuko dute Zugaza zineman.

Filma berriro proiektatuko da Durangon. Pozik zaude?

1986ko Gabon zahar egunean estreinatu zen Durangon, Kurutziaga zineman. Harrezkero, aire zabalean ere proiektatu zen Durangon, Gerediagak antolatuta. Primeran plataforman ere badago.

40 urte geroago, zein oroitzapen datorkizu?

Oroitzapen denak, onak. Filmazio gogorra izan zen. 50 minutuko film luzea hamar egunean filmatu genuen, oso denbora gutxian. Lantalde txikia ginen, denok lagunak. Londresetik Gabriel Beristain ekarri nuen, Buñuelen aktore baten semea da. Luis Beristainek, haren aitak, Zilarrezko Hartza irabazi zuen Berlinen, *Caravaggio*gaz.

Filmaren ezaugarrietako bat soinua dela diote.

Soinua zuzenean grabatu gura izan nuen, tokiko euskaran. Horretarako, Matthew Launay ekarri nuen, *En compañía de Lobos* egin zuena.

Kolaboratzaile prestigiotsuak izan zenituen bidelagun.

John Madison ere bai, Hollywoodetik. Kanpoko talde ingeles horregaz eta bertako lagunekin egin genuen filma. Ibon Azueta produkzio exekutiboa, Iñaki Aizpurua produkzio burua, Imanol Larrinaga zuzendari laguntzailea, eta Iñigo Camarero kameralari laguntzailea.

Zein berezitasun dauka filmak?

Euskararen erabilerari dagokionez, sasoi hartarako film aitzindaria egin genuen. Gainera, istorioa entretenigarria da eta argazkia eta soinua ere oso onak dira. Antton Valverdek egin zuen musika.

Finantziazio aldetik, zelan ekoiztu zenuen filma?

Nik neuk ekoiztu nuen. Horretarako, diru laguntzak eskuratu nituen Kultura Ministeriotik, ETBtik eta Eusko Jaurlaritzatik. Hala ere, defizitarioa izan zen, zinemetan ezin izan zelako estreinatu. Izan ere, 50 minutu irauten duenez, telebistari saldu behar izan genion.

Zelan sortu zen bi anaien istorioa?

Borgesen ipuin bat zegoen, *La intrusa*. Bernardo Atxagari ipuin hori utzi nion. Asko gustatu zitzaion, gidoia egitera ausartu zen, baina protagonistak nagusiago ipinita. Gero nik gidoia hartu, eta gazteago ipini nituen.

Zelako harrera izan zuen filmak?

Oso harrera ona. Esate baterako, Josu Martinezek esan zuen euskaraz egin den pelikularik onena dela. Mikel Laboari eta Zumetari ere asko gustatu zitzaien.

Zelan prestatu zenuten grabazioa?

Pelikula hamar egunean grabatu arren, hiru astean egon ginen bideoagaz entseguak egiten. Felixek Euskal Filologia ikasi zuen eta Iroren irakasle egiten zuen. Irok, bere aldetik, oso fonetika ona zuen. Beste aktoreei dagokienez, Elene Lizarralde ETBko lokutorea zen. *El Feroz*en lan egin zuen Fernando Fernán Gomezegaz. Epailearen papera Luis Iriondok egin zuen, eta tabernariarena 'Eguzki' arrazolarrak.

Filma Bolonian birmasterizatu zenuten iaz.

Hantxe dago pelikula zaharrak berreskuratzeko tailerrik onena, eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez joan ginen hara. Egun bakarrerako joan nintzen, ez zegoelako diru gehiago.







ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

ANBOTOKIDE

25 URTE 25 SARI 25 EGUNETAN

Oso urteurren berezia da guretzat, eta bidelagun izan zareten guztioi bihotzez eskerrak eman gura dizkizuegu, zuen babesa ezinbestekoa da eta.

Oraindino ez zara **ANBOTOKIDE**?
Batu komunitatera eta ez galdu aukera!

Ana Camarero



Ana Camarereroren eskutik aurpegiko tratamentu pertsonalizatua
DURANGO

Nekatur opari txartela



Nekaturren eskutik egonaldi baterako 180€-tako opari txartela

La Perla



Talasoterapia zirkuitorako bi sarrera

IrriSarri Land abentura parkea



Abentura pakerako 2 sarrera Pro

2200-ko Magefesa parrilla elektrikoa

AZAROAK 30



Izarbe Elektrotresnak-en eskutik 2200w-ko parrilla elektrikoa
IURRETA

Latxaberri txahal okela

ABENDUAK 1



5 kg-ko LOTEA.
650 g-ko 8 pakete
ABADIÑO

Mancisidor 1866

ABENDUAK 2



Mancisidor bitxi dendaren eskutik 300€-ko bonua
DURANGO

Eusko Label Winter Series

ABENDUAK 3



Finala
2 sarrera
OTSAILAK 13
GERNIKA

Txirrindularitzarako materiala

ABENDUAK 4



Ciclos Iturriaga, Basati Bike eta Malda Bikes-en material sorta

%50 *deskontua 2026ko kidetzan*

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
946 816 558
anboto.org/egin-kide

ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

SZENATOKIA

ABENDUAK 4

- **10:30 Antzerki sorkuntza partekatzen inprobisazioaz!** *Tailerra*
- **12:00 Antzerki sorkuntza partekatzen inprobisazioaz!** *Tailerra*
- **19:00 61.DA Inaugurazio ekitaldia. Gerediaga elkartea.** *Ekitaldia*

ABENDUAK 5

- **20:00 Gabriel Aresti Mug(h) arri. Joxan Goikoetxea & Euskamerata. (Sarrerak txarteldegian).** *Errezitala*

ABENDUAK 6

- **11:30 Diamante gordina. Anodino Teatroa.** *Antzerkia*
- **12:00 Fede gabeko odolkia. Kaia Produkzioak.** *Antzerkia*
- **13:00 Errautsezko zaldia. Bor Bor Antzerki Konpainia.** *Antzerkia*
- **16:30 Errautsezko zaldia. Bor Bor Antzerki Konpainia.** *Antzerkia*
- **17:00 Fede gabeko odolkia. Kaia Produkzioak.** *Antzerkia*
- **17:30 Diamante gordina. Anodino Teatroa.** *Antzerkia*

ABENDUAK 7

- **11:30 Rudolf eta Auskalo. Garrasi eta Eszenika Naz.** *Antzerkia*



DURANGOKO AZOKA

- **12:00 Maria, graziaz betea. Maria Blanco.** *Bakarrizketa*
- **13:00 Supituki Show. Supituki Antzerkia.** *Ikuskizuna*
- **16:00 Rudolf eta Auskalo. Garrasi eta Eszenika Naz.** *Ikuskizuna*
- **17:00 Maria, graziaz betea. Maria Blanco.** *Bakarrizketa*
- **17:30 Supituki Show. Supituki Antzerkia.** *Ikuskizuna*

ABENDUAK 8

- **11:30 Kapsula 0.1. Aldaketa Dantza Konpainia.** *Dantza*
- **12:00 Momentutxoa. Meri Urcelay.** *Antzerkia*
- **13:00 Taxi. Tartean Teatroa.** *Antzerkia*
- **16:00 Momentutxoa. Meri Urcelay.** *Antzerkia*
- **17:00 Kapsula 0.1. Aldaketa Dantza Konpainia.** *Dantza*
- **17:30 Taxi. Tartean Teatroa.** *Antzerkia*

KABIA

ABENDUAK 4

- **10:00 Wikikasi: Erronka digitalen lantegia.** BadaLab – Euskal Wikilarien Kultur Elkartea - Talaios. *Tailerra*
- **11:45 Wikikasi: Erronka digitalen lantegia.** BadaLab – Euskal Wikilarien Kultur Elkartea - Talaios. *Tailerra*
- **16:00 Sustatu, 25 urte, ospakizuna eta hausnarketa.** *Topaketa*

ABENDUAK 5

- **10:30 Gamer Gela. Game Erauntsia, Rolariak.** *Topaketa*
- **11:00 Magia Hiritarra. Beñat, Rolariak.** *Topaketa*
- **12:00 Fantasia Munduak. Albert, Rolariak.** *Topaketa*
- **16:30 Gamer Gela. Game Erauntsia, Rolariak.** *Topaketa*
- **17:00 Mendi Abenturak. Pello, Rolariak.** *Topaketa*
- **18:00 Mendi Abenturak. Pello, Rolariak.** *Topaketa*

ABENDUAK 6

- **10:30 Gure txokoak, zerbitzua euskaraz ematen duten komertzio eta espazioen gida. Xumar Altzugarai.** *Aurkezpena*
- **11:20 Artizarra: aditu eta aritu euskaldunen planeta. Idoia Torregarai Martija.** *Aurkezpena*
- **12:10 Hau Ez Da. Iruñe Astitz Larunbe eta Jokin Pedreño.** *Aurkezpena*
- **17:00 ERRE.** *Aurkezpena*
- **18:00 Fedibertsoa Saretzen elkartearen aurkezpena.** *Aurkezpena*

ABENDUAK 7

- **11:00 AA, apokalipsia edo etorkizun oparoa. Ander Barrena, Borja Calvo eta Asier Amezaga.** *Mahaingurua*
- **17:00 Arbaso Eguna. Elene Cid eta Antonio Casado.** *Aurkezpena*
- **18:00 Sortzaileak Eremu Digitalean. M. Ayllon, E. Eibar, I. Sagarminaga, A. Pérez, A. Bueno eta A.Ocerin.** *Mahaingurua*

ABENDUAK 8

- **11:00 Nondik nora, migrazioa aztergai duen Ikusgelaren saila. Ikusgela – Zehar - Leo Bueriberi.** *Aurkezpena*
- **12:00 Paperezko Elektronika. Mabel de la Fuente Basurto.** *Tailerra*
- **16:30 Egin Ttap!. Kukulaisi.** *Topaketa*




kutxabank

AHOTSENEA LITERATURA



DURANGOKO AZOKA

ABENDUAK 4

- **10:30 Hitza hoskide. Odei Barroso.** *Tailerra*
- **12:00 Hitza hoskide. Odei Barroso.** *Tailerra*
- **16:00 Fashion. Maribel Aiertza.** Elkar. *Aurkezpena*
- **16:30 Odol-ilargiaren alaba. Kepa Irizar.** Elkar. *Aurkezpena.*
- **17:00 Aurrez ordua hartuta. Marie-Aude Murail / Leire Errandonea itzultzailea.** Elkar. *Aurkezpena*
- **17:30 Iraultzaz. Amaia Astobiza, Hannah Arendt.** Katakrak. *Aurkezpena*
- **18:00 Su txikia. Lorea Azpeitia.** Susa-Lisipe. *Aurkezpena*
- **18:30 Barne(ko) (a)hotsak. Matxalen Bezos.** Leolo edizioak. *Aurkezpena*
- **19:00 Joana Albretekoa. Garazi Albizua.** Nabarralde. *Aurkezpena*
- **19:30 Esadazu gezurra. Aintzane Usandizaga.** Susa. *Aurkezpena*

ABENDUAK 5

- **11:00 Eromena. Esanezinetik abiatuz. Garazi Muguruza.** Alberdania. *Aurkezpena*
- **11:30 Dejabu. Eszena praktika bat.** Dejabu, Ainara Gurrutxaga. *Aurkezpena*
- **12:00 Haur Besoetakoa. Unai Iturriaga eta Alex Sanvi.** Xabiroi, Ikastolen Elkartea. *Aurkezpena*
- **12:30 Argazkiaren erabilera. Leire Lakasta, Annie Ernaux.** Elkar. *Aurkezpena*
- **13:00 Alderantzira zamalka. Danele Sarriugarte.** Katakrak. *Aurkezpena*
- **13:30 Titikornio. Irati Garmendia.** Erein. *Aurkezpena*
- **14:00 Ezagutu zintudanean. Enara Garmendia.** Erein. *Aurkezpena*
- **16:00 Hegal egiten. Eneko Bidegain.** *Elkar. Aurkezpena*
- **16:30 Zelaiaren bila. Andoni Agirrezabala.** Erein. *Aurkezpena*
- **17:00 Jende modernoa. Helena Azkarragaurizar eta Bertol Arrieta.** Elkar. *Aurkezpena*
- **17:30 Izan gizona. Aritz Galarraga.** Alberdania. *Aurkezpena*
- **18:00 Deserroa haurtzaro. Itziar Madina.** Maiatz. *Aurkezpena*
- **18:30 Mila hilekoren erreka. Alaine Agirre.** Elkar. *Aurkezpena*
- **19:00 Morlans. Xabier Mendiguren.** Elkar. *Aurkezpena*
- **19:30 Itzalen konpainia.** Mikel Pagadi. Elkar *Aurkezpena*
- **20:30 Izanen GA.** *Errezitaldia*

ABENDUAK 6

- **11:00 Ezezagunak trenean... irakurtzen. Miren Billelabeitia.** Consonni. *Aurkezpena*
- **11:30 Trumoi-hodeien pean. Lander Zurutuza.** Maiatz. *Aurkezpena*
- **12:00 Dakigun hori. Garazi Arrula.** Txalaparta. *Aurkezpena*
- **12:30 Negu berria. Ekaitz Herrera.** Elkar. *Aurkezpena*
- **13:00 Drapetomania. Joseba Sarrionandia.** Pamiela. *Aurkezpena*
- **13:30 Langile baten alaba. Irati Elorrieta.** Pamiela. *Aurkezpena*
- **14:00 Erreplika. Maialen Berazategi.** Susa. *Aurkezpena*
- **16:00 Argonautak. Ibon Egaña**. Katakrak. *Aurkezpena*
- **16:30 Gaupasa kluba. Irati Jimenez.** Erein. *Aurkezpena*
- **17:00 Tonta. Jasone Osoro.** Erein. *Aurkezpena*
- **17:30 Zigor kolonian eta beste ipuin batzuk. Franz Kafka. Naroa Zubillaga eta Malen Amenabar.** 1545. *Aurkezpena*
- **18:00 Egunen alde zuria. Itziar Ugarte.** Susa. *Aurkezpena*
- **18:30 Hutsak gure izena ahoskatu zuenean. Iosune de Goñi.** Susa. *Aurkezpena*
- **19:00 Ekida. Antologia (2021-2026).** Ekida arte ekimen sozialista. *Aurkezpena*
- **19:30 Dudak dakarrena. Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia.** Bigara, Pamiela. *Errezitaldia*

ABENDUAK 7

- **11:00 Matxe-Matxe. Mikel Etxaburu.** Pamiela. *Aurkezpena*
- **11:30 Fauna. Iñigo Satrustegi.** Pamiela. *Errezitaldia*
- **12:00 Harakinaren alaba. Yurre Ugarte.** Elkar. *Aurkezpena*
- **12:30 Hezur hiztunak / Non dira haurrak. Ximun Fuchs, Harkaitz Cano eta Jokin Oregi.** Susa-EHAZE. *Aurkezpena*
- **13:00 Gramo bat. Nerea Loiola eta Maider Leturiaga.** Erein. *Aurkezpena*
- **13:30 Hasieren hiztegia. Ane Labaka eta Sandra Garayoa.** 1545. *Aurkezpena*
- **14:00 Txoriei begiratzen zien gizonari begiratzen zion emakumea. Patxi Zubizarreta.** Alberdania. *Aurkezpena*
- **16:00 Balearen kanta. Maitane Perez / Aitona elefante bat da. Maitane Arizti.** Elkar. *Aurkezpena*
- **16:30 Ilaria edo desobedientziaren konkista. Gabriella Zalapi / Itziar Diez de Ultzurrun.** Txalaparta. *Aurkezpena*
- **17:00 Izarren hautsaren erabilera berriak. Itziar Otegi eta Irati Retolaza.** Alberdania. *Aurkezpena*
- **17:30 Geratzen dena. Ione Gorostarzu. Elkar. Aurkezpena**
- **18:00 Oroiminaren hirietan aldaroka. Jon Iturregi.** Erein. *Aurkezpena*
- **18:30 Shakespearek ez zuen inoiz egin. Jone Gartzia / Charles Bukowski, Linda Lee, Michael Montfort.** Katakrak. *Aurkezpena*
- **19:00 Atilaren gutizia.** Jon Arretxe. Erein. *Aurkezpena*
- **19:30 Lera. Castillo Suarez.** 1545. *Errezitaldia*

ABENDUAK 8

- **11:00 Munduko Poesia Kaierak. Juan Gelman, Elizabeth Bishop, Jorge Luis Borges, eta Kamala Das.** Susa. *Aurkezpena*
- **11:30 Eden. Igarabaren sekretua. Martin eta Xabier Etxeberria.** Elkar. *Aurkezpena*
- **12:00 Zirtak su II. Eta hitza emakume egin zen. Maite Lopez las Heras.** Erein. *Aurkezpena*
- **12:30 Atzerakarga. Fermin Etxegoien.** Pamiela. *Aurkezpena*
- **13:00 Muga hautsien hegalak. Ernesto Prat.** Elkar. *Aurkezpena*
- **13:30 Deiadarra. Pirinioetako erresistentzia. Aritz Ibarra Agirrezabal.** Nabarralde. *Aurkezpena*
- **14:00 Arantzarik gabeko arrosa. Oihane Amantegi Escribano.** Draco Somnium. *Aurkezpena*
- **16:00 Basatiak. Maria Reimondez-Nerea Loiola itzultzailea.** Susa-Lisipe. *Aurkezpena*
- **16:30 Hegats aldizkariaren 61. zenbakia. Literatura Palestinaren alde.** EIE. *Aurkezpena*





AHOTSENEA MUSIKA



DURANGOKO AZOKA

ABENDUAK 4

- **10:30 Zimurrak izango ditugunerako. Eztizen Artola, Haira Aizpurua, Maite Sarasola eta Peru Goioaga.** *Ikuskizuna*
- **12:00 Zimurrak izango ditugunerako. Eztizen Artola, Haira Aizpurua, Maite Sarasola eta Peru Goioaga.** *Ikuskizuna*
- **15:40 Maider Cigarroa. Maider Cigarroa.** *Disko aurkezpena*
- **16:50 Larra bideak. Larra bideak II.** *Disko aurkezpena*
- **18:00 Xabier Badiola. Leiho ondoan xori bat.** Balio Dute. *Disko aurkezpena*
- **19:10 Aiert. Arriskuaz Larrutan.** *Disko aurkezpena*
- **20:20 Amorante. Ez Dot Amaitu.** *Disko aurkezpena*
- **21:30 Maskak. Ziklikoa.** *Disko aurkezpena*
- **23:30 Beire eta Txopet.** *Kontzertua* sarrerarekin (Eskuratu Landako Guneko Info puntuan)

ABENDUAK 5

- **11:00 Ane Martija. Hasi berriz.** *Disko aurkezpena*
- **12:10 Andrea Goikolea. Lur sakonetako ura.** *Disko aurkezpena*
- **13:20 Garazi Esnaola. Ez Gaude Hemen.** *Disko aurkezpena*
- **14:30 Kattalin eta nenufarrak. Zeruak eta sabaiak.** Bidean produkzioak. *Disko aurkezpena*
- **15:40 48280. Bandida.** Baga Biga. *Disko aurkezpena*
- **16:50 I6. Desira eta damua.** *Disko aurkezpena*
- **18:00 RTZ Kolektiboa. Eden.** *Disko aurkezpena*
- **19:10 Ziztada & Rlantz. Pareidolia.** *Disko aurkezpena*
- **20:20 Eztandap. Itzalak.** *Disko aurkezpena*
- **21:30 Marte Lasarte. Erabakitzeko.** Balaunka. *Disko aurkezpena*
- **23:30 Mikosis eta TOC.** *Kontzertua* sarrerarekin (Eskuratu Landako Guneko Info puntuan)

ABENDUAK 6

- **11:00 Eider Saez. Sorginkeria.** Baga Biga. *Disko aurkezpena*
- **12:10 Maren. Ahaztu baino lehen.** *Disko aurkezpena*
- **13:20 Trikidantz. Mende laurden plazaz plaza.** *Disko aurkezpena*
- **14:30 Mugan. Bizitza ozen denean.** Bidean produkzioak. *Disko aurkezpena*
- **15:40 Lanbro. Hondamenaren etsaia.** *Disko aurkezpena*
- **16:50 Gartxot. Bizirik gaude.** *Disko aurkezpena*
- **18:00 Hor Hor. Hor hor.** *Disko aurkezpena*
- **19:10 Sukena. Nondik hasi. Bidean produkzioak.** *Disko aurkezpena*
- **20:20 Bisaiak. Azken ilarako diskrezioa I.** *Disko aurkezpena*
- **21:30 McOnak. Traganarrua.** Balaunka. *Disko aurkezpena*
- **23:30 Peiremans+.** *Kontzertua sarrerarekin* (Eskuratu Landako Guneko Info puntuan)

ABENDUAK 7

- **11:00 Bidenabar. Bidenabar.** *Disko aurkezpena*
- **12:10 KAK! Koldarren Atseden Kronikoa.** *Disko aurkezpena*
- **13:20 Bakelite. Zirrara.** *Disko aurkezpena*
- **14:30 Iingles. Erraietakoa.** *Disko aurkezpena*
- **15:40 Azax. I. uzta.** *Disko aurkezpena*
- **16:50 Kode. Bi lurren artean.** *Disko aurkezpena*
- **18:00 AriMa. Iletargixe.** *Disko aurkezpena*
- **19:10 Streetwise. Nora goaz? Elkarrengatik.** *Disko aurkezpena*
- **20:20 Modus operandi. Paradisua.** Baga Biga. *Disko aurkezpena*
- **22:30 Musika Berria jaia. Verde Prato, Silitia eta Malakias.** *Kontzertua sarrerarekin* (Eskuratu Landako Guneko Info puntuan)

ABENDUAK 8

- **11:00 Nuzz. Hara eta hemen.** *Disko aurkezpena*
- **12:10 Iban Martin. Zaurietan Lore.** *Disko aurkezpena*
- **13:20 Amaia Riouspeyrous. Kabi goxo bat.** *Disko aurkezpena*
- **14:30 Peppermint sextet. Bixi bixi zuzenean.** *Disko aurkezpena*
- **15:40 Indigo. Aterpe hori.** *Disko aurkezpena*
- **16:50 Somak. Lekuko Bakarrak.** *Disko aurkezpena*
- **18:00 Borla. Larunbata Dreaming.** *Disko aurkezpena*
- **19:10 Ziraun. Biziraun.** *Disko aurkezpena*







"Memoriaren garrantzia ikasi dut Astolagaz; etorkizuneko jendearentzat ere idazten dugu"

TXELU ANGOITIA GUTIERREZ ASTOLA ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Gerediaga Elkartearen Astola aldizkariak 20. urteurrena bete du; hamarkada bitan, inguruko historia eta istorioak berreskuratu eta jendeari gerturatu dizkio



Txelu Angoitia, Astolaren 20. alea aurrean duela.

J.D. ASTOLA

Durangaldeko historia, kultura eta gaurkotasuna biltzen dituen Astola aldizkariak 20 urteko ibilbidea egin du. Hamarkada bitan eskualdeko hamaika istorio jaso du erreportaje landuen bitartez. Txelu Angoitia da Astolako zuzendaria.

Astolak zelan jasoko du 20 urteko ibilbidea?

Amaieran, gehigarri legez, Astola urtero erosi eta irakurtzen duten 10 lagunek Astola eurentzat zer den azaltzen dute. Gure komunitateari egindako esker oneko keinu bat da, oso garrantzitsua delako guretzat. Astolaren aurtengo aurkezpenean ere horixe bilatu genuen: bidelagun izan ditugun egile, saltoki, publizitate-etxe eta gainerakoei eskerrak ematea. Elkar ezagutzeko eta urte hauetan osatu dugun sarea sendotzeko aukera ere izan zen.

Urte hauetan, zertan aldatu da Astola eta zertan jarraitzen du berdin?

Aldizkaria sortu aurretik, denbora asko eman genuen pentsatzen zelakoa izan behar zuen. Eta esango nuke hasieratik ondo asmatu genuela. Orain dela hogei urteko ale bat hartu eta gaur egungoagaz alderatzen baduzu, nahiko antzekoak direla ikusiko duzu. Baina elementu berriak gehitu ditugu, elkarrizketak edo podcastak, esaterako. Izan ere, momentu batean eztabaida izan genuen paperean jarraitu ala ez erabakitzeko. Azkenean, paperean jarraitzea erabaki genuen, paperak Internetek ez dituen balio batzuk dituelako. Gainera, lantaldean geundenak liburuzale amorratuak ginen.

Zelan erabakitzen duzue ale bakoitzean zer gai jorratu?

Ale bakoitzean gai desberdinak lantzen ahalegintzen gara. Batzuei historia gustatuko zaie, besteei gaur egungo gauzak, baina, denera hamar erreportaje badira, Astola hartzen duenak gutxienez lau edo bost irakurtzeko gogo betea izatea gura izaten dugu. Askotariko edukiak izaten dira eta esango nuke horixe dela urterik urte eusten laguntzen digun gakoetariko bat.

Argazkiek toki berezia dute Astolan. Zer ematen dio argazkiak erreportajea kontatzeko moduari?

Hasieratik argi izan genuen ilustrazioari eta diseinuari garrantzi handia eman behar geniela. Argazkia ez da testuari laguntzeko zeozer bakarrik, argazkiak istorio bat kontatzen du, beste ikuspuntu batetik. Testuak eta argazkiak elkarren osagarri dira istorio bat kontatzerakoan.

Astolaren aurkezpenean erredakzio taldeko kide izandako hiru lagun izan dituzue gogoan: Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal eta Izaskun Ellakuriaga. Zer zor die Astolak eurei?

Ikaragarri zor die. Funtsezkoak izan dira, bakoitza bere erara. Eurek barik ez zen Astolarik egongo. Jon Irazabalek aldizkariaren ideia asmatu zuen eta asko mugitu zen errealitate bihurtu zedin. Memoria historiko izugarria zuen eta, oro har, oroimen handikoa zen. Jose Mari Uriarte zutabeetariko bat izan zen, hainbat kontutan. Batzarretan, esaterako, zentzua eta norabidea ematen zituen. Aldizkaria biziki maite zuen; betidanik izan zuen proiektu hau bere nahietariko bat, eta buru-belarri lan egiten zuen, mimo eta kariño handiz. Oso jakintsua zen eta ezagutza hori edonogaz partekatzeko prest zegoen. Niri asko irakatsi zidan. Eta Izaskun Ellakuriagari buruz, zer esan! Makina bat zen, arlo guztietan: erreportajeak egiten, gaiak pentsatzen eta jendea bilatzen. Kazetaritza-ikuspegia ematen zuen, eta, gazteena izanik, sare sozialen mundua ere ekarri zuen erredakziora. Kalean entzundakoak eta han-hemenka jasotakoak ekartzen zituen, eta beti zebilen gauza berrien arrastoan. Espiritu hori aportatzen zuen.

Astolaren bitartez asko irakatsi duzue. Baina zuk zeuk zer ikasi duzu Durangaldeari buruz?

Esaterako, memoria zein garrantzitsua den ikasi dut. Ez dugu gaur egungo irakurleentzat bakarrik lan egiten, hemendik 50 urtera aldizkaria irakurriko dutenentzat ere lan egiten dugu. Zer gertatu zen jakin dezaten, akatsak ez errepikatzeko. Eta herriko eta inguruko istorioak kontatzea merezi duela ere ikasi dut. Asko dago kontatzeko, eta ahalegina egin behar da horrek guzti horrek argia ikusteko.

BegiraDA erakusketa

Durangoko Azokaren harira, Txelu Angoitiak BegiraDA izeneko argazki erakusketa inauguratuko du abenduaren 4an, Durangoko Museoaren Atartea gunean. Iaz 25 urte bete zituen Azokako argazkiak egiten, eta ibilbide horretan jasotako irudietatik abiatuta osatu du bilduma. Guztira, 15 argazki-muntaiak osatzen dute bilduma. Kronologiari jarraitu beharrean, erakusketak Angoitiaren begiradatik hautatutako uneak jasotzen ditu.





ESKAINTZA
0 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza eskaintza.

HELBURUAK
Ikasle euskaldun, kritiko eta eleanitzak.

ELIKADURA
Jantoki Eko-Arduratsuaren ziurtagiria. Bertokoa, ekologikoa eta sasoikoa.



KURUTZIAGA IKASTOLA
BIZITZEKO HEZI

Matrikula urte guztian zabalik

Urte guztian bisita egiteko aukera.



IKASTOLAK

Galtzareta Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia 946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus

"Euskarazko haur eta gazteentzako literaturak indarra hartu du azken urteetan"

ITXASNE ARABIOURRUTIA LASPEÑAS SAGUGANBARAKO ARDURADUNA



Saguganbarak urtero duen harreragaz oso pozik dago Itxasne Arabiourrutia.

A. Basauri DURANGO

Berbaro elkarteak denbora hartuko du, asteon, Durangoko Azokan etxeko txikienen aterpe den gunea muntatzeko eta azken kontuak lotzeko. Saguganbarako arduradun Itxasne Arabiourrutiak (Elorrio, 1998) azaldu duenez, azken hileetan lanean buru-belarri aritu dira dena prest egoteko Durangoko Azokarako.

Urterik urte egonkortuz joan den espazioa da Saguganbara, etxeko txikienentzat egitarau zabala eskaini guran. Nabarmenduko zenuke ekitaldirik?

Urterik urte eskaintza zabalduz joan da Saguganbaran. Oro har literatur aurkezpenak gailendu arren, tailerrak eta askotariko ikuskizunak (magia, pailazoak...) eskaintzen ditugu urtero. Aurten, gainera, tailer gehitxoago antolatu dugu. Literatur sorkuntzen artean *Afonia* nabarmenduko nuke, Naroa Martinez Suarezek eta Unai Ruiz Galarzak aurkeztuko dutena. Bestalde, haur literatura inklusiboa lantzen duen *Sustraietatik eraldatuz* helduentzako tailerra ere nabarmenduko nuke; orain arte antolatutako ekintzetatik apur bat bereizten da.

Eskaintza osatzerakoan, zer da kontuan hartzen duzuena?

Zorionez, eskaintza zabala dago Euskal Herrian, baina Durangoko Azokak irizpide batzuk zehaztuta ditu, gune guztietarako berdinak direnak. Hartara, aurten argitaratutako euskarazko sorkuntzak kontuan hartu ditugu, besteak beste, genero ikuspegia ere aintzat hartuta. Bestalde, ibilbide laburra duten sortzaileei euren espazioa ematen ahalegintzen gara. Saguganbarak diziplina asko batzen du (literatura, ipuin kontaketa, marrazketa, ikuskizunak, tailerrak, jolasak...) eta denen arten oreka mantentzen ahalegintzen gara.

Aurten badago nobedaderik?

Saguganbaran aurkezten diren sorkuntza guztiak dira nobedadeak. Dena dela, iazko liburu gomendagarriak ere eskura ipintzen ditugu. Guneak orain arteko dinamikagaz jarraituko du. Dena dela, nobedade legez, bisitariek aukera izango dute, sortzaileek euren aurkezpena egin eta gero, bertan aurkeztutako liburu eta sormen lanak erosteko.

Saguganbarak bisitari ugari hartzen du urtero.

Bai. Oso pozik gaude urtero izaten dugun harreragaz, orokorrean ekintza guztietan. Gainera, ekitaldirik ez dagoenean ere Saguganbara zabalik egoten da eta askok aprobetxatzen dute aukera hori liburuetan eta bestelako sormen lanetan kuxkuxeatzeko. Gainera, oso giro gozoa sortzen da familian egoteko.

Zelan ikusten duzue euskarazko haur eta gazte literatura?

Azken urteetan indarra hartu duela esango nuke. Eskaintza oparoa eta kalitatezkoa da. Gaiei dagokienez, asko zabaldu da eskaintza, eta marrazketa asko zaintzen da. Hala ere, esango nuke ume eta gazteen irakurketa ohiturak aldatzen dabiltzala, eta haien interes eta beharrizanetara gehiago egokitu beharko genuke. Adibidez, haur eta gazteek oso gogoko dituzte komikiak.

Berbaro elkarteak Haur eta Literatur Aretoa ere antolatzen du irakurzaletasuna bultzatzeko. Egonkortuta dagoen ekimena da.

Bai, guztiz egonkortuta. Urtero arrakasta itzela izaten du. Urrian hasi ginen eta abenduaren 4an amaituko da; Durangaldeko 13 ikastetxetako 3.500 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute aurten. Irakurzaletasuna bultzatzeko dugun jarduerarik garrantzitsuenetarikoa da, Saguganbaragaz batera.





SAGUGANBARA



DURANGOKO AZOKA

ABENDUAK 4

- **10:00 Herrialde ikusezinak. Amaia Egidazu Arrube.** *Tailerra*
- **12:00 Herrialde ikusezinak. Amaia Egidazu Arrube.** *Tailerra*
- **16:00 Mimosa bat loretan. Garazi Kamio, Irene Irureta eta Mirentxu Ibargarai.** Haria. 5-99 urte. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Musu bete urte. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak eta Leire Bilbao.** Katxiporreta. Liburu aurkezpena
- **18:30 Ospa, egurgile! Mariñe Jauregi eta Mitxel Elortza.** Mezulari argitaletxea. 5-8 urte. *Ipuin kontaketa*

ABENDUAK 5

- **10:30 Mati bilduma. Itxaso Martin eta Eider Eibar.** Alai argitaletxea. 8-10 urte. *Liburu aurkezpena*
- **11:15 Pipistrelo txikia. Jaione Gutierrez.** 1545 argitaletxea. 4-8 urte. *Liburu aurkezpena*
- **12:00 Afonia. Naroa Martinez Suarez eta Unai Ruiz Galarza.** Pamiela argitaletxea. 4 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **12:45 Eire Moon bilduma. Lur Gallastegi eta Paula Moreno.** Alai argitaletxea. 8-12 urte. *Liburu aurkezpena*
- **13:30 Ortupoemak. Leire Bilbao eta Yolanda Mosquera.** Pamiela argitaletxea. 4 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **16:15 Xor eta Beltz, mundu bat guztiontzat. Ane Aierbe, Maialen Diaz de Cerio eta Iñaki Sanz-Azkue.** Alberdania. 6-8 urte. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Zapaburuarena eta Erraldoiarena. Lukene Igartua Egaña.** Mila Bilduma. 4-9 urte. *Ipuin kontaketa*
- **18:00 Lurpeko eskaileren misterioa. Antton Kazabon eta Leire Iparragirre.** Alberdania. 8-12 urte. *Liburu aurkezpena*
- **18:45 Xele eta Xuri, bi lagun bidaiari. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena.** Ibaizabal. 8-10 urte. *Liburu aurkezpena*

ABENDUAK 6

- **10:30 Hizkien jolasa. Amaia Egidazu Arrube.** Pamiela argitaletxea. 3 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **11:15 Otsoko eta Xixili. Maren Basterretxea.** Ikaselkar. 4-6 urte. *Ipuin kontaketa*
- **12:00 Potx magoaren kutxa magikoaren aurkezpena. Potx magoa.** Potx eta Lotx. 6 urtetik gora. *Ikuskizuna.* Landako Plaza.
- **13:00 Pox, Mox eta Trumoi. Ederra kasketa! Yolanda Arrieta eta Ane Arzelus.** Denonartean. 3-6 urte. *Liburu aurkezpena*
- **13:45 Animalien ahotsa. Olatz Aranceta Rebodero eta Leire Morrás Aranoa.** Nor. 10 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **16:00 Toki: Euskaraz sortu. Euskaraz jolastu.** Toki Kultur Elkartea. 6 urtetik aurrera. *Tailerra*
- **18:00 Kokolulu Itsas Erronka Marraztua. Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga.** Pamiela. 3 urtetik aurrera. *Aurkezpena*

ABENDUAK 7

- **10:30 Triku eta Kiño. Iñigo Astiz eta Eider Eibar.** Pamiela argitaletxea. 6 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **11:00 Larun. Jokai produkzioak.** Tailerra. *Landako Plazan*
- **11:30 Go!azen abentura bilduma. Lur Gallastegi.** Alai argitaletxea. 8-12 urte. *Liburu aurkezpena*
- **12:30 Mimuk. Dorleta Kortazar, Alaia Martin eta Udane Ansa.** 1545 argitaletxea. 5-10 urte. *Liburu aurkezpena*
- **13:30 Etxerik etxe.** NAITA Produkzioak. 3 urtetik aurrera. *Ipuin kontaketa*
- **16:00 Landaretxo. Paula Moreno eta Silvia Manzana.** 1545 argitaletxea. 5-10 urte. *Tailerra*
- **17:30 Etxea, norberarena. Izaskun Jauregi eta Maitane Gartziandia.** Txalaparta. 4 urtetik aurrera. *Ipuin kontaketa*
- **18:30 Alex eta hankabikoen basoa. Itziar Otegi eta Iraia Okina.** 1545 argitaletxea. 5-10 urte. *Liburu aurkezpena*

ABENDUAK 8

- **10:30 Semaforo Domatzailea. Aintzane Usandizaga, Maria Ortiz eta Garazi Urkola.** Txalaparta. 6 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **11:15 Parrast! Amaia Egidazu.** 1545 argitaletxea. 3-7 urte. *Liburu aurkezpena*
- **12:00 Supituki Txiki Show. Supituki Antzerkia.** 5-12 urte. Landako Plaza. *Ikuskizuna*
- **12:00 Sustraitik eraldatuz: Haur literatura inklusibitatearen aldeko aliatu.** Asun Casasola Elkartea. Helduentzat. *Tailerra*
- **13:30 Harroxko. Oihane Jaka eta Irati Peluaga.** Elkar argitaletxea. 6 urtetik aurrera. *Liburu aurkezpena*
- **16:45 Miau-miau bilduma. Juan Kruz igerabide eta Eider Eibar.** Alai argitaletxea. 6-8 urte. *Liburu aurkezpena*

DURANGON ZEHAR

ABENDUAK 4

- **10:30-20:00 Basarte IV. Arte Azoka.** Eskuahaldunak elkartea. Ermodo 23
- **11:00-21:00 Eixu Artisau eta Sortzaileen azoka. A**ndra Mariko elizpean
- **11:30-14:30 / 16:30-20:30 Euskal Denda artisau azoka.** Merkatu plazan. Arbaso elkartea

ABENDUAK 5

- **10:30-20:00 Basarte IV. Arte Azoka. Eskuahaldunak elkartea.** Ermodo 23
- **11:00-19:00 Musika Berria gunea.** Ezkurdi plaza
  - **12:30 Nize**
  - **13:10 Diskoen azalera tailerra**
  - **14:10 Ines Dj**
  - **16:10 Pisoo**
  - **16:40 Periferia gure musiketan, mahaingurua**
  - **17:30 Ithaka**
  - **18:00 Entzuleen kluba**
  - **19:00 Kantu bitan**
  - **20:00 Broken Brother Brass Band.**
- **11:00-21:00 Eixu Artisau eta Sortzaileen azoka.** Andra Mariko elizpean
- **11:30-14:30 / 16:30-20:30 Euskal Denda artisau azoka.** Merkatu plazan. Arbaso elkartea
- **15:00 Hikadromoa. Ondoren, Miren Amuriza eta Amaia Agirreren bertsoak.** Landako ikastetxean
- **19:30 Txistua XXI. mendean. Kontzertua.** Jesuiten auditorioan. Silboberri elkartea

ABENDUAK 6

- **10:30-20:00 Basarte IV. Arte Azoka.** Eskuahaldunak elkartea. Ermodo 23
- **11:00-19:00 Musika Berria gunea.** Ezkurdi plaza
- **11:00-21:00 Eixu Artisau eta Sortzaileen azoka.** Andra Mariko elizpean
- **11:30-14:30 / 16:30-20:30 Euskal Denda artisau azoka.** Merkatu plazan. Arbaso elkartea

ABENDUAK 7

- **10:30-20:00 Basarte IV. Arte Azoka.** Eskuahaldunak elkartea. Ermodo 23
- **11:00-19:00 Musika Berria gunea. Ezkurdi plaza**
- **11:00-21:00 Eixu Artisau eta Sortzaileen azoka.** Andra Mariko elizpean
- **11:30-14:30 / 16:30-20:30 Euskal Denda artisau azoka.** Merkatu plazan. Arbaso elkartea
- **12:00 Dantza kalejira. Kriskitin, durangaldeko musikariak eta Eivissako Sa Colla de Portmany taldea.** Merkatu plazan hasita
- **17:00-19:00 Mintzodromoa. Taupa mugimendua.** Landako plazako karpan

ABENDUAK 8

- **10:30-20:00 Basarte IV. Arte Azoka.** Eskuahaldunak elkartea. Ermodo 23
- **11:00-19:00 Musika Berria gunea. Ezkurdi plaza**
- **11:00-20:00 Eixu Artisau eta Sortzaileen azoka.** Andra Mariko elizpean
- **11:30-14:30 / 16:30-19:00 Euskal Denda artisau azoka.** Merkatu plazan. Arbaso elkartea

BERBAGAILUA

ABENDUAK 4

- **11:00 Ez DA! normala.** *Bideopodcasta*
- **12:10 Ez DA! normala.** *Bideopodcasta*
- **16:00 Eugeniren txokoa. Eugeni Alzibar.** *Bideopodcasta*
- **18:00 Ilargiaren amaieran. Ilargi Arrizabalaga eta Amaia Iriondo.** *Bideopodcasta*

ABENDUAK 5

- **12:00 Gau Pasa. Euskal Irratiak eta BADA.** *Bideopodcasta*
- **16:00 Leku baten bila. Iraia Cambra.** Naiz irratia. *Bideopodcasta*
- **18:00 Peryferyka Podkast. Zihara Etxeberria eta Daniel Nespereira.** *Bideopodcasta*

ABENDUAK 6

- **12:00 Plaz! Nahia Sillero. EITB.** *Bideopodcasta*
- **16:00 BaDA!bil. Asier Kortabarria.** DA! eta EITB. *Bideopodcasta.*
- **18:00 Liburuen Errepublika Txikia.** Bilbo Hiria irratia. *Bideopodcasta*

ABENDUAK 7

- **12:00 Edukiontzia. Beñat Iturbe, Jone Bengoa, Lander Varona eta Asier K.** Euripean Corp. *Bideopodcasta*
- **16:00 Belarrijana. Ane Serna eta Martin Ziarrusta.** Gedar Telebista. *Bideopodcasta*

ABENDUAK 8

- **12:00 Liburuen mintzoa. Mikel Albisu.** Euskal Idazleen Elkartea, Bilbo Hiria, Naiz eta Antxeta irratiak. *Bideopodcasta*
- **16:00 MurMur musika podcasta. Gorka Erostarbe.** Berria. *Bideopodcasta*
- **18:00 Musikazuzenean. Koldo Otamendi.** Hamaika TB. *Bideopodcasta*

ATARTEA

ABENDUAK 4

- **— BegiraDA! Azoka argazkietan. Txelu Angoitia.** *Erakusketa*
- **— Euskal Herriko irudigileen erakusketa.** *Erakusketa*

ABENDUAK 5

- **— BegiraDA! Azoka argazkietan. Txelu Angoitia.** *Erakusketa*
- **— Euskal Herriko Irudigileen erakusketa.** *Erakusketa*
- **11:00 Cristina Fernández.** *Aurkezpena*
- **11:30 Ibon Elorri.** *Aurkezpena*
- **12:00 Irati Antia. Burdinezko ohea.** *Aurkezpena*
- **12:30 Andoni Beristain. Amaia Garcíarekin hizketan.** *Solasaldia*
- **17:00 Mikel Begoña eta Asier Iturralde. Aton. Haritzararen itzal handia.** *Aurkezpena*
- **17:30 Ane Arzelus.** *Aurkezpena*
- **18:30 Joxean Muñoz.** *Aurkezpena*
- **19:00 Laura Mimas.** *Aurkezpena*

ABENDUAK 6

- **— BegiraDA! Azoka argazkietan. Txelu Angoitia.** *Erakusketa*
- **— Euskal Herriko irudigileen** *erakusketa.*

ABENDUAK 7

- **— BegiraDA! Azoka argazkietan. Txelu Angoitia.** *Erakusketa*
- **— Euskal Herriko irudigileen** *erakusketa.*
- **11:00 Talaia Feministaren urteko dosierra.**
- **12:00 Aberri Eguna, euskal nazioaren eguna.** EH Batera. *Mahaingurua*
- **13:00 Mundua lo datzan bitartean.** Txalaparta eta Gernika Palestina herri ekimena. *Mahaingurua*
- **16:00 Askatasunean ikasi.** Txatxilipurdi elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **17:00 Mugarik Gabeko Poemak 2: Kurdistan, Irlanda, Euskal Herria.** Suargi elkartea. *Liburu aurkezpena*
- **17:30 Kultura ondasun komuna.** Suargik antolatutako topaketaren hasiera. *Musika emanaldia*
- **17:45 Kultura ondasun komuna da. La Basu, Nerea Quincoces, Diana Belova, Sevinaz Evdike, Roberto Awanari, Yado Uzun eta Chris O'Shea.** *Mahaingurua*
- **18:30 Sorkuntza, irudimena eta erresistentzia. Itziar Ituño, Suna Alan, Petra Probst, Aleksei Belov eta Dejwar Mousa.** *Mahaingurua*
- **19:15 Suargiren topaketaren bukaera. La Basu.** *Musika emanaldia*

ABENDUAK 8

- **— BegiraDA! Azoka argazkietan. Txelu Angoitia.** *Erakusketa*
- **— Euskal Herriko irudigileen** *erakusketa.*







Aiert Agirre, Unai Unzueta eta Ibon Azpiri. MAIALEN REKALDE

"Gaztetxeetan eta undergroundean ere pop musikak bere lekua du"

AIERT AGIRRE, UNAI UNZUETA ETA IBON AZPIRI MEISON

Meison hirukote berriztarrak 'Ultrapop' lan luzea kaleratu du aurten, Ondarroako Betepaeta zigiluagaz; Durangoko Azokan erosteko aukera egongo da

Aritz Maldonado BERRIZ

48240 aurkezpen kartaren ondoren, Meison hirukote berriztarrak *Ultrapop* lan berria kaleratu du. Lan honek "aukera berriak" zabaldu dizkie; adibidez, Bilboko Kafe Antzokian jotzekoa.

Pozik zaudete 'Ultrapop'-ek izandako harreragaz?

Oso pozik. Apiriletik hona hogei kontzertu baino gehiago eman ditugu eta espero ez genuen tokietan jotzeko aukera izan dugu. Kolektibo askok kontuan izan gaituzte eta oso eskertuta gaude. Jotzeko aukerarik izan ezean, honek ez luke zentzurik izango guretzat.

Horrez gainera, oso pozik gaude diskoak gura genituen soinua eta estetika dituelako. Orain, denbora batera eta perspektibagaz begiratuta, atseginagoa da; sorkuntza eta edizio prozesuak ematen duen burukominak batzuetan zaildu egiten du harago ikustea. Badirudi inguruko jendeari ere gustatu zaiola, eta horrek ematen duen poza ezin da beste ezegaz konparatu.

Iruditzen zait aurreko lana hardcore melodikotik hurbilago zegoela.

> **"Soinu aldaketa nabarmena dago bigarren lan honetan; bilakaera naturala izan da"**

> **"Oso pozik gaude 'Ultrapop' diskoagaz, bilatzen genituen soinua eta estetika dituelako"**

Bai. Ildo beretik doan arren, soinu aldaketa nabarmena dago lehenengo lanetik bigarren honetara. Bilakaera hori nahiko naturala izan da. Azken finean, momentuan entzuten dituzun musika eta influentziak aldatzen doaz, eta, gura barik bada ere, horrek sorkuntza prozesuan eragiten du. Beti disfrutatu izan dugu gehiago estilo desberdinak jorratuta. Gaur beste disko bat egin behar izango bagenu, beste noranzko bat hartuko luke seguruenik.

Lehenengo EParen garaian, hardcorearen gitarra doinu pisutsuek liluratzen gintuzten, eta AEBetako talde askoren eragina izan genuen, beti ere melodiari behar zuen garrantzia ematen genion arren. Azken urte bietan beste influentzia batzuk ere izan ditugu, eta askotan ez gara hain urrun joan behar horien bila. Azken urteetan asko edan dugu hemengo eszenatik eta Estatuan egiten denetik, eta esango genuke hori nabaritu egiten dela azken diskoan. Askok esan digute hori.

Pop doinuak aldarrikatzen dituzue.

Nahiko poperoak gara hirurok eta askotan badirudi popa entzutea ez dela zilegi, batez ere gizonon artean; gizonok une oro musika gogorra entzun behar dugula ematen du. Gainera, *mainstream*-agaz lotzen den genero bat da; Dua Lipa, Bruno Mars eta horrelakoak datozkigu burura, eta gu nahiko urrun gaude doinu horietatik, baina gaztetxeetan eta undergroundean pop taldeek ere lekua badutela uste dugu, eta zentzu batean gutxietsi egiten dela uste dugu.

Julen Apella berriztarrak idatzi du letretariko bat.

Julen gure lagun mina da, eta aspalditik genuen buruan ideia hau. Abestia pasatu genion, melodia eta diskoaren gaia apur bat zehaztuzta, eta sekulako letra egin zigun. Edonork ez dauka poeta bat kuadrillan.

Urtzi Izagaz grabatu duzue Eten Espazioan.

Lehenengo EPa lokalean grabatu genuen, Imanol Jareño lagunagaz. Bigarren lanerako estudio batera joan gura genuen eta Urtzik ideia bikainak eman zizkigun. Lehehengo momentutik oso ondo ulertu du gure soinua eta diskoan islatu gura genuena. Instrumentazioa zuzenean grabatu genuen eta prozesua bizkorra izan zen.

Betepaeta kolektiboagaz kaleratu duzue lana. Zergaitik?

Orain urte eta erdi sartu ginen kolektiboan. Dena, Mahl Kobat, Ithaka eta Nekktar taldeekin batera gaude. Ez da zigilu tradizional bat, taldeen arteko sare bat da, autogestioa abiapuntu hartzen duena.

Iruditegirako Sergio Devesa zaldibartarragaz lan egin duzue berriro. Gustura beragaz lanean?

*Ultrapop*en iruditegia Maria Manerok eta Sergio Devesak egin dute. Mariak azaleko eta kontrazaleko diseinuak egin ditu, 3Dgaz lotura duen guztia. Eta Sergiok logoak, biniloaren maketazioa eta kamiseten diseinua egin ditu. Oso pozik gaude emaitzagaz. Asko gustatu zaigu zelan batu duten euren lana.



OSTALARITZA GIDA 2026

ABADIÑO



ZELAIETAKO JUBILATUAK

Solozabal, 1 baxua
ABADIÑO
Tel.: 671 286 104

Nagusi, gazte eta umeen etxea.
Bariku eta zapatuetan afariak.
Domeketan glutenik bako raba eta zanburinak. Enkarguak.
Kontzertuak eta erakusketak. Hator!

IURRETA



GAUARGI

Dantzari, 4 behea
LURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak.
Barikuetan mollete eta errazioak.
Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

IURRETA



LA GUIPUZCOANA

Bixente Kapanaga 2, behea
IURRETA
Tel.: 946 81 10 05

TXULETOIA. Menu bereziak.
Pintxoak. Ogitartekoak.
Eramateko ogitartekoak.
Plater konbinatuak.

ZORNOTZA



XIBERU

Zezilia Gallartzagoitia, 9
ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea eguenero eta afariak asteburuero. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

DURANGO

Koldo Berria

Itsaski entsalada sagar ali-oli arinarekin.
Trufaz beteriko arrautza 65°tan onddoekin.
Bakailaoa txangurruarekin.
Txahal txuleta zatitua.
Etxeko postrea.

Menuaren prezioa 49,50€ BEZ-a barne.
Menuak mahai osokoa izan behar du
Ez ditu edariak barne hartzen

KOBIKA

San Inazio auzunea, 8
DURANGO
Tel.: 946 810 003





LEZURI

Fray Juan de Zumarraga, 13
DURANGO
Tel.: 946 810 858

- Egunero gosariak, bazkariak eta afariak ematen ditugu.
- Sukaldea egun guztian zehar zabalik dago.

DURANGO



BODEGON GAUR

Mikeldi, 2 behea 1
DURANGO
Tel.: 612 527 436

- Askotariko pintxoak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Patata frijituak
- Errazioak



EL BOTXO

Murueta Torre auzunea 8A
DURANGO
Tel.: 641 022 429

Hasierakoak, entsaladak, ogitartekoak, hanburgesak, sandwichak eta plater konbinatuak. Azoka gunearen aurrez aurre gaude.



Txibitena, 9
DURANGO
Tel.: 602 387 814

ARRIPU

Gure berezitasuna tortillak dira, 24 zapore ditugu aukeratzeko, eta denak primerako osagaiekin egindakoak, noski.



Merkatu plaza
DURANGO
Tel.: 638 839 917



LANDAKO TABERNA

Txibitena 9
DURANGO (Anbulatorio aurrean)
Tel.: 946 80 81 95

Gosariak, tortillak eta pintxoak. Ogitartekoak eta errazioak azoka egunetan. Enkarguak eta ospakizunak. Rabak, kroketak, patatak eta ortuko rabak domeka eta jaiegunetan. Pintxopotea barikuetan.



BOTAFUMEIRO

Olleria, 10
DURANGO
Tel.: 946 216 036

Galizia zatitxo bat Durangon, bere espezialitateekin: olagarroa, arrainak, eta haragia txingarretan.



OLAJAUREGI

Kurutziaga, 52
DURANGO
Tel.: 946 200 864

Azokako egunetan menu berezia. Ikusi nahi duzu? Sartu gure webgunera, **olajauregi.com,** eta erreserbatu.



IBAIZABAL

Ibaizabal Etxetaldea, 2B
DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



SORGIN

Ibaizabal 4C,
DURANGO
Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak, txibierroak, janari minak, errazioak, musika zuzenean. Zatoz eta goza gaitzazu!

DURANGO



ZAZPI

Ibaizabal auzunea, 1-1A
DURANGO
Tel: 944 175 500

Ogitartekoak, pintxoak, gazta-tarta eta etxeko bizkotxoak. Errazioak jaiegunetan eta asteburuetan. Tostadak asteburuetan. Zatoz eta gozatu gure terrazaz azokatik metro gutxira.



MESOI BARRIA

Kalebarria, 1
DURANGO
Tel: 94 603 03 41

Etorri gure eguneko menua eta askotariko pintxo eta errazioak dastatzera!



MIKELDI

Kalebarria, 7
DURANGO
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia, giro ezin hobean.



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonandia plaza
DURANGO
Tel.: 946 200 007

Baserri bat baino zerbait gehiago. Bokatak eta pintxoak egunero. Euskal preso eta iheslariak azokara!



RUGBY

Goienkale, 18
DURANGO
Tel.: 946 200 007

Kirola eta kultura uztartuta euskara bultzatzen dugu. Azokan zehar taloak salgai tabernan.



AMALUR

Barrenkale, 19
DURANGO
Tel.: 692 150 199

Berezitasuna gildetan eta bermutetan. Terraza handia udaletxe parean.



ZERO

Andra Mari, 6
DURANGO
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.



LES VILLES

Kanpatorrosteta, 1
DURANGO
Tel.: 94 466 84 82

Astelehenetik barikura eguneko menua. Asteburuetan menu berezia. Karta egunero: plater konbinatuak, hanburgesak, sandwichak, bokatak.

DURANGO



AXPE

Ermodo, 12
DURANGO

@axpe_durango
Errazioak, ogitartekoak eta
giro paregabea Azoka egunetan!



PIZTU

Josemiel Barandiaran 8 behea
DURANGO
Tel.: 685 152 188

Azoka egunetan etorri gure gosari, pintxo, hanburgesak eta tortilla goxoak bazkaltzera eta afaltzera.



XIXILU

Oñiturri, 4
DURANGO
Tel: 722 674 940

Gosariak - Eguneko menua Karta - Pintxoak - Ostrak asteburuetan. Artisau-garardo mota asko. Etorri dastatzera!



OIERDI

Herriko gudarien kalea, 8
DURANGO
Tel.: 946 129 824

Pintxoak, gosariak eta errazioak asteburuetan.



TXO BY LES VILLES

San Roke Kalea 17,
DURANGO
Tel.: 94 621 83 39

Gosariak egunero 12:00ak arte. Bazkariak asteburuetan. Afariak egunero.



HERRIA

Askatasun etorbidea, 28
DURANGO
Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 6etatik aurrera zabalik,
asteburuetan 08:00etatik aurrera.
Pintxoak eta gosariak.
Asteburuetan rabak.
Giro polita! Zatoz!



PERRATXIKA

Astxiki, 1
DURANGO
Tel: 679 894 402

Errazio bereziak astegun eta asteburuetan.
Saiheskia eztiarekin.
Askotariko kroketak.
Olagarroa mojo picón erara.



ALINÉ

Astxiki Kalea, 8
DURANGO
Tel.: 633 292 823

Postreak, ogitartekoak, errazioak eta momentuan eginiko jakiak eskaintzen ditugu.



Euskal Dendak abenduaren 4an zabalduko ditu ateak, 12:00etan, eta abenduaren 8ko iluntzera arte egongo da zabalik.

Euskal Dendak 30 urte beteko ditu Euskal Herriko artisautza erakusten

Urteurrena ospatzeko, aurreko urteetako kartelen erakusketa antolatu dute eta 'Artisau despistatua' lehiaketa berreskuratuko dute. Aurtengo iruditegian ere Dendaren historiari buruzko hainbat erreferentzia aurkitu daiteke

Joseba Derteano EUSKAL DENDA

Durangoko Azokako egunetan, merkatu plaza Euskal Herriko artisauen erakusleiho erraldoi bihurtuko da aurten ere. Abenduaren 4tik 8ra, Euskal Dendak 30. aldia beteko du bertan, Arbaso elkarteak antolatuta. Merkatu plazako luze-zabalean artisauen aurtengo sorkuntzak eta lanak ikusteko eta erosteko aukera izango dute bisitariek.

Hiru hamarkada betetzea bada zeozer, eta hainbat ekintza antolatu dute hori ospatzeko. Esaterako, aurreko aldietan Euskal Denda iragartzeko sortutako kartelak erakusketa batean batuko dituzte. Aurtengo kartel ofizialean ere urteurrena protagonista da. Izan ere, kartelean Nafarroako Zapatari oinetako-dendako hainbat argazki ageri da. Zapatari urtero etorri da Euskal Dendara, hutsik egin barik, eta fideltasun hori eskertzeko modu bat da. Euskal Dendako iruditegiaren barruan beste kartel bat ere diseinatu dute, *vintage* estilokoa, eta 1996ko lehenengo kartelaren estetika eta formatua ditu.

30. urteurreneko ospakizunak ez dira hor amaituko. Izan ere, garai batean bisitarien artean ezagun bihurtu zen lehiaketa bat berreskuratuko dute: 'Artisau despistatua'. Artisau postu batean bere produktuekin zerikusik ez duen gauza bat ezkutatuko dute eta gauza arrotz hori deskubritzen duenak sari bat izango du.

Euskal Dendak abenduaren 4an zabalduko ditu ateak, 12:00etan, eta gonbidatu berezi bat izango du: Niko Vázquez M.C.D. punk rock talde mitikoaren sortzailea eta baxu-jotzailea. Vazquezek Bizkaia industriala irudikatzen duen hiperrealismo estiloko koadro bat emango du azokarako, eta Dendako zozketaren postal bat erosten dutenen artean zotz egingo dute.

Irekieraren ondoren, Euskal Denda bost egunez egongo da zabalik eta ordutegi hau izango du lehenengo hiru egunetan: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:30era. Abenduaren 8an 19:00etan itxiko ditu ateak, hau da, aurreko egunetan baino ordu eta erdi lehenago.

Durangaldeak sei postu ditu: Unzalu bitxigintza, Amalur, Gorakat, Veletta, Nudame eta Bloosi

10 postu berri

Aurten 53 postu ipiniko dituzte, iazko kopuru bera. Merkatu Plazan ipini daitekeen gehienezko postu kopurua da. Zenbakiei dagokienez, ohikoa den moduan, Bizkaiko sektoreak izango du ordezkaritzarik handiena, 32 postugaz, iaz baino bi gehiago. Hurrengo, Gipuzkoa dator, bederatzi postugaz, iaz baino bat gutxiago. Nafarroatik zortzi etorriko dira, iaz baino bat gutxiago, eta Arabatik lau, iazko kopuru bera.

Iaztik hona hamar postu aldatzen dira. Bizkaitik zazpi nobedade daude: Amalur, Lauky Libera (ehungintza), Qordatta (bitxigintza), Cerámica Buia (urte batzuetako etenaren ondoren bueltatuko da), Bloosi (zeramika-gremioan sortu berria), eta Encuadernación Villar (koadernaketa artisauaren arlokoa). Gipuzkoatik Lisbeth etorriko da, ehungintza-gremioko marka bat. Pandemia garaian azokatik igaro ondoren, aurten berriro parte hartuko du. Nafarroatik Sukha marka berria etorriko da; alanbrezko panpinak egiten ditu. Elikagaien arloan ere izango da berritasun bat: Bizkaiko Eskuola lehenengoz etorriko da azokara.

Iaztik hona hamar postu aldatuko dira: Bizkaitik zazpi, eta Araba, Gipuzkoa eta Nafarroatik bana

Eskualdeko postuak

Durangaldeak ere bere lekua izango du Euskal Dendan, sei artisauren parte-hartzeagaz. Eneko Unzalu bitxigile durangarrak ez dio hutsik egingo urteroko hitzorduari, eta Abadiñoko Amalurrek mota guztietako arropa eramango du merkatu azokara. Beste stand bat Elorrioko Gorakat dendakoen poltsek eta motxilek beteko dute. Durangoko Velettaren produktu izarrak toteak eta motxilak dira, eta Berrizko Nudamek hirugarren urtez jarraian parte hartuko du makrame bidezko sorkuntzekin: txakurrentzako lepokoak eta uhalak, animalientzako kabestruak... Berritasun legez, Iurretako Bloosi zeramikagileak lehenengoz parte hartuko du.

Datuak sektoreka emanda, ehungintzari loturiko artisauak dira nagusi oraindino, 16 postugaz. Horien artean denerik aurkitu daiteke: jantziak, osagarriak... Kopuruekin jarraituta, bitxigintzaren ingurukoak datoz ondoren, zazpi postugaz. Zeramikako gremioak bost stand izango ditu eta kosmetikaren eta larruaren ingurukoek hiruna izango dituzte. Ondoren, beira, panpina, bisuteria eta enkoadernazio arlokoak datoz, bina standegaz. Azkenik, euskal kirolak, egurrak, egurrezko jostailuek eta marionetek stand bana izango dute.

"Artisautzaren mundua asko errespetatzen dut; atzetik zenbatu ezineko lana dago"

NIKO VÁZQUEZ LÓPEZ MUSIKARIA ETA ARTISTA GRAFIKOA

Niko Vázquez izango da aurtengo Euskal Dendako enbaxadorea. Musikari eta artista bilbotarrak bere koadro bat emango du, bisitarien artean zotz egiteko



Adimen artifiziala erabilita, sona lortu duten sorkuntzak egin ditu. FERNANDO FERNÁNDEZ

J.D. EUSKAL DENDA

Niko Vázquez M.C.D. musika talde mitikoaren sortzailea eta baxu-jotzailea izan zen, eta urteek aurrera egin ahala sormen-kezkak beste diziplina batzuetara ere zabaldu ditu, adimen artifiziala lagun. Euskal Dendako 30. urteurrenaren enbaxadorea izango da eta azokaren inaugurazioan Bizkaia industriala irudikatzen duen koadro bat emango du, bisitarien artean zotz egiteko.

Zelan sortu zaizu proposamena?

Orain urte batzuk, Bilboko igeriketa ikastaro batean, Arbaso elkarteko bazkide den Adriana Rufrancos ezagutu nuen. Qordatta artisau-marka berea da. Berak proposatu zidan. Hasieran zalantza izan nuen, ez zaidalako begiraden erdigune izatea gustatzen, baina azkenean konbentzitu egin ninduten.

Euskal Dendan zure koadro bat emango duzu, zotz egiteko. Zelakoa izan da pieza horren sorkuntza?

Adimen artifizialaren bitartez sorturiko argazki-liburua da, *Make Bilbao GrAI Again* izenekoa. Bilbo industrialaren 70eko eta 80ko hamarkadetako irudiak birsortzen ditu, garai hartako kaleak, lantegiak, langileak eta giroa irudikatuta. Ni Bilboko Irala auzokoa naiz eta niretzat gaztetako oroitzapenetan arakatzearen modukoa izan da. Orain lau bat urte, lehenengo irudiak publikatzen hasi nintzenean, jendea txundituta geratzen zen. Benetako argazkiak zirela uste zuten. Kontua da irudiek sona hartu zutela, eta Zorrotz argitaletxeak liburua egitea proposatu zidan. 160 irudi sortu nituen libururako. Hortik, hainbat pieza enkantean ateratzeko aukera sortu zitzaidan eta baita erakusketak egitekoa ere: Bilboko Itsasmuseumean, Meatzarien Museoan, Zarauzko Photomuseum-en… 50 pieza baino gehiagoko erakusketak ziren. Pieza horietariko bat da Euskal Dendari emango diodana.

Adriana Rufrancosek eta zuk proiektuten batean kolaboratu duzue.

> **"Lehenengo zeuri gustatu behar zaizu; gero jendearengan hausnarketa eragiten badu, primeran"**

Bai. *'Make Bilbao GrAI Again* argitaratu eta gero, beste bat egin gura nuen, introspektiboagoa. Irudiei testuak egingo zizkien norbait behar nuen eta Adrianak egin zizkidan. Hortik *Aburrido de ser salvaje* irten zen. Gero, bere bitartez azoketara ere joan naiz; Bilboko Chic Marketera, esaterako. Han artisautzaren mundua barruragotik ezagutu nuen. Uste dut askotan jendeak ez duela baloratzen artisautzako pieza baten atzean dagoen lan eta mimo guztia. Artisautzaren mundua asko errespetatzen dut; atzetik zenbatu ezineko lana dago.

Artisautzagaz txikitatik duzu hartu-emana.

Gurasoek 17 urtegaz emantzipazio-ziurtagiria egin zidatenean (barrez), inprenta batean lanean hasi nintzen. Grabatuak eta irudi batzuk egiten nituen; paperean inprimatu, eta gero Bilboko Zabalburu inguruko pasabide azpira eramaten nituen saltzera. Gero, 90eko hamarkadan Durangon bizi izan nintzen. EITBn nenbilen lanean, eta orduan bisitatu nuen Euskal Denda lehenengoz.

Sare sozialetan adimen artifizialagaz egindako bideo bitxiak partekatzen dituzu, eta horietariko batzuk biral bihurtu dira. Zer bilatzen duzu sorkuntza horiekin?

Hilabete inguru daramat 'Bask in Basque' izeneko bideoak sare sozialetan ipintzen; adimen artifizialagaz sorturikoak dira. Euskal Herriko topiko eta estereotipoekin jolasten duten film laburrak dira, umoretik begiratuta. Jende batek beste batek baino hobeto hartzen ditu, baina, tira, hori bakoitzaren arazoa da. Gauzak egiten ditudanean, ez dut bilatzen aseptikoak izatea. Niri berez ateratzen zait alde ironiko hori, sarkasmo puntu hori, txantxa egiteko joera hori. Baina egiten dudanak zeozer eragitea bilatzen dut beti, jendearengan erreakzioren bat sortzea. Hala ere, ez dut nahita egiten, ez ditut gauzak sortzen jendeari gustatzeko asmoz. Musikagaz eta abestiak sortzeagaz gertatzen den moduan, lehenengo zeuri gustatu behar zaizu. Egiten dudanagaz gozatu egiten dut. Gero, jendearengan hausnarketaren bat eragiten badu, primeran. Horrek ere pozten zaitu, baina beti ere oinak lurrean ipinita. Ez zait artisteoaren kontu hori gustatzen, ezta gauzak zergaitik egin ditudan azaldu beharra ere. Gurago dut sortu eta bakoitzak bere ondorioak ateratzea.

> **"Niri berez irteten zait alde ironiko hori, sarkasmo puntu hori, txantxa egiteko joera hori"**



"Luisa maistra aitzindaria zen, euskaltzalea eta oso eskuzabala; erreferente bat"

JOSI SIERRA ORRANTIA ETA MARISA BARRENA LARRUZEA DOKUMENTAL EGILEAK


Josi Sierra eta Marisa Barrena.

M.Zuazubiskar DOKUMENTALA

Josi Sierra galdakoztarra *Andereño Monika gogoratzen: 1934ko ikastolaren historia* dokumentalagaz etorri zen iazko Durangoko Azokara. Sasoi hartan, Sierrak ezer gutxi zekien Luisa Goiria Mardarazi buruz. Orain, ostera, Zornotzako maistra ohiaren dokumentala aurkeztera dator, Marisa Barrena bidelagun duela. Estreinaldia abenduaren 8an izango da, 11:00etan, Irudienean.

Hasteko, nor zen Luisa Goiria Mardaraz?

Marisa Barrena: Luisa maistra aitzindaria zen, euskaltzalea eta oso eskuzabala; erreferente bat. Luisa Zornotzako baserri batean jaio zen, Derandein baserrian, herritik oso urrun. Ordubeteko bidea egin behar izaten zuen herrigunera joateko. Zortzi urte nituela, bizitzak auzo hartara eraman ninduen, bertara joan nintzen bizitzera. Eta hara heldutakoan, nire txikitako nahia ezingo nuela bete pentsatu nuen. Txikitatik maistra izatea desio nuen, eta leku hartan bizi izanda maistra izatea ezinezkoa izango zela uste nuen. Horixe bera komentatu nion hango ondoko etxeko emakumeari, Karmen Goiriari, eta hauxe esan zidan: 'Zer diozu, bana! Nire izeko, Luisa Goiria, hemen jaio zen eta maistra izan zen'. Luisa niretzat erreferente bat zen, bai maistra aitzindari legez, bai euskaltzale legez ere. Sasoi hartan, baserri inguruetan euskaraz berba egiten zen, baina herrigunean askorik ez. Hori bai, Luisak beti egiten zuen euskaraz.

Lehenengoz, zortzi urtegaz izan nuen Luisaren berri, eta gero, nagusiagotan, bera ezagutzeko plazera izan nuen. Esaterako, Zornotzako Barnetegian lanean nenbilela, berbalagun antzeko proiektutxo bat martxan ipini genuen eta Luisak gugaz parte hartu zuen. Beti zegoen prest laguntzeko eta euskaren alde aritzeko.

Josi, zuk ezagutu zenuen Luisa?

Josi Sierra: Orain urtebetera arte ez nekien ezertxo ere emakume honen inguruan. Azokara Monika Lekunberriren dokumentala aurkeztera etorri baino lehentxoago, dokumentu bat aurkitu nuen. Bertan, 22 emakumeren inizialak agertzen ziren, tartean L. Goiriarena. Apur bat ikertzen hasi nintzen, jendeari galdezka. Marisak ezagutzen zuela esan zidan, eta esan nionean Luisaren inguruko dokumental bat egin gura nuela eta aurkezle bat beharko nuela, berarentzat lan hori egitea ohore bat izango zela esan zidan.

M.B.: Eta horrelaxe izan da. Aipatu dudan moduan, Luisa erreferente bat izan da niretzat, eta lan hau egitea memoria berreskuratze lan bat izan da, emakumea bistaratzekoa.

Zelakoa izan da dokumentalaren sormen prozesua?

J.S.: Oso polita eta aberasgarria. Grabazioetan ere ezusteko asko izan dugu eta guk espero barik Luisaren oso gertuko jendearengana hurbildu gara, eta elkarrizketatzeko ohorea izan dugu. Oso momentu bereziak jaso ditugu.

Zergaitik joan behar dute herritarrek dokumentala ikustera?

M.B.: Aipatu dudan moduan, memoria berreskuratze lan bat da, emakumeak bistaratzekoa. Isilean egon diren emakumeei omenaldi bat egiteko modua da.

J.S.: Orokorrean ezer gutxi dakigu iraganari buruz eta emakume aitzindari hauei buruz. Gure inguruan horrelako hainbat historio egongo da. Eta honegaz herritarrak ere animatu gura ditugu istorioak kontatzera, memoria berreskuratzera.







"Ikastolan haur bati sor dakizkiokeen ikaretariko batzuk agerian uzten ahalegindu naiz"

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU IDAZLEA

Urkiaga 'Ikastolan mamuak daude' lanagaz izango da azokan



Jon Ander Urkiaga.

M. Zuazubiskar HAUR LITERATURA

Iaz gazteentzat sortu eta gero, aurten etxeko txikientzat sortu du berriro ere Urkiagak.

Egun batzuk falta dira oraindino azokarako, baina zelan dator Jon Ander Urkiagaren azoka?

Azken urteetako salbuespenen bat edo beste tarteko, bizitza osoan egin dudan antzera joango naiz azokara, irakurle eta musikazale legez. Ahalik eta unerik lasaiena aukeratu, eta etxeko txikiekin izango gara bertan ikusi beharrekoak ikusten eta erosi beharrekoak erosten. Gurasook ardura handia dugu transmisio lan horretan.

'Ikastolan mamuak daude' lana kaleratu duzu. Nori zuzenduta dago?

Irakurtzen hasten dabiltzan lehen irakurle horientzat izan daiteke aproposa, baina baita beharbada oraindino irakurtzeko gaitasunik izan ez, eta ipuinak nagusiren baten ahotik entzun gura duten haurrentzat ere.

Emango diguzu ipuinaren zertzeladaren bat?

Liburuak Eñaut du protagonista, eta eguna joan eguna etorri, ez du ikastolara joan gura izaten. Berak dio ikastolan mamuak daudela, baina aitita Brauliok lagunduta, mutikoak berezkoa duten izara zuria erantziko die mamuei, eta konturatuko da mamuak ez direla horren mamu. Umeek era guztietako beldurrak izaten dituzte haurtzaroan, eta sarritan beldur horien ondorioz harresi ikaragarriak eraikitzen dituzte euren egunerokotasunean. Bada, ikastolan haur bati sor dakizkiokeen ikaretariko batzuk agerian uzten edo horiei aurre egiten ahalegindu naiz liburuan, eta aitita Braulio lagun izan dut zeregin horretan.

Ipuina ilustrazioekin lagunduta dago.

Iker Uribek egin ditu irudiak, eta istorioari atmosfera bat ematen laguntzen diote; hau da, berbaz idatzitakoak findu eta zehaztu ditu ilustrazioekin. Iruditzen zait berehala ulertu zuela istorioaren nondik norakoa, eta lehenengo zirriborroak egin zituenean bertan harrapatu zuen eszena bakoitzagaz igorri gura izan nuena.

Iaz 'Kobazuloa' liburua argitaratu zenuen, gazte literaturara saltoa emanda. Aurten haurrentzat sortu duzu berriro. Zer dela eta? Erosoago sentitzen zara?

Gazte literaturako nire lehenengo eleberria *Mendekua ordainetan* izan zen, eta *Kobazuloa* liburuak bestelako eduki bat landu bazuen ere, asmoa eta estiloa antzekoak direla esango nuke. Oraingoan umeentzako liburua irten da; aspalditxo idatzitakoa da, baina oraintxe heldu zaio bere aukera. Liburu honen jatorrian bazegoen ideia, banekien zer kontatu gura nuen eta zer elementu erabili gura nituen kontaketarako, eta gustura eman diot itxura.



PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

"Durangoko Palentinoan bideoklipa grabatzea esperientzia itzela izan da"

DEYENE FERNÁNDEZ SÁNCHEZ ETA EVA GALVÁN NOVOA TABERNARIAK



Deyene Fernandez eta Eva Galvan, Durangoko Palentinoaren aurrean.

A. Basauri DURANGO

Durangoko Palentinoko arduradun Deyene Fernández Sánchez (Eibar, 1986) eta Eva Galván Novo (Iurreta, 1979) buru-belarri dabiltza Durangoko Azokarako prestatzen. Peiremans+ taldeak denen ahotan ipini du Palentinoa, tabernari kanta bat eskaini eta gero. *Hirugarren mailan* diskoan batutako *Durangoko Palentinoa* abestiaren bideoklipa ere bertan fimatu dute. Deyenek eta Evak esan dute bizipen zoragarria izan dela. Durangoko Azokako egunak oso politak direla esan dute, lan handia izaten dutela aitortu arren.

Aurtengo Durangoko Azoka berezia izango da zuentzat.

Eva Galván: Durangoko Azoka beti izaten da berezia guretzat. Aurtengoan, apur bat gehiago.

Deyene Fernández: Hala da, bai. Durangoko Azoka izaten den egunetan oso ondo lan egiten da. Gainera, oso giro polita eta jatorra sortzen da normalean.

Egun hauetan lan asko izango duzue dena prestatzeko. Jende asko etortzea espero duzue?

E.G.: Dena prestatzen gabiltza, bai. Baliteke jende gehiago etortzea, baina, tira, lokala txikia da eta kabitzen garenok sartuko gara, gehiago ez.

D.F.: Azokak irauten duen egunetako lana baino gatxagoa izaten da askotan aurretik egin behar den kudeaketa lana. Aurten zer guragoko du bezeroak? Ardo zuria, sagardoa, kriantza, salda, txorizoa... eguraldi ona egingo ote du? Horrek guzti horrek buruko min gehiago ematen du (barrez). Dena dela, etortzeko diren guztiak besoak zabalik hartuko ditugu.

Azkenaldian Palentinoa denen ahotan dago, Peiremans+ taldeak tabernari abestia eskaini eta gero. Igarri duzue zuen egunerokoan?

D.F.: Egia esanda, publizitate handia izan dugu. Horrelako aukerak izatea oso polita da eta eskura etortzen direnean benetan da eskertzekoa. Hainbat lagun etorri zaigu sekulakoa izan dela esatera. Baina gure egunerokoa ez da aldatu.

E.G.: Bezeroren batek esan digu orain famatu bihurtu garela.

Bideoklipa ere bertan grabatu zuten. Zelako esperiantzia izan da?

E.G.: Produkzio-etxea etorri zenean eta abestia ipini zigutenean aho bazalik geratu ginen. Eta ea tabernan grabatzeko aukerarik izango zuten galdetu zigutenean dudarik barik onartu genuen. Esperientzia itzela izan zen. Pentsatu ere ez nuen egiten hainbeste pantaila, argi eta foku ipiniko zituztenik. Oso egun polita izan zen.

D.F.: Oso egun luzea izan zen, orduantxe sanfaustoak amaitu berri, gainera. Baina oso esperientzia polita izan zen. Askotariko jendea etorri zen, artista mordoa, eta bakoitza bere energia propioagaz. Denen artean oso energia polita sortu zen.

Motzean

Kaña ala kafea?
Biak: Kaña.
Musikari edo talde bat?
D.F.: Marea.
E.G.: Gatibu.
Azokan erosteko...
D.F.: Lagun batentzat diskoa.
E.G.: Alabentzat liburuak.
Plater bat?
D.F.: Arrautza frijituak patatekin.
E.G.: Txipiroiak

E.G.: Itziar Ituñok denak dantzan ipini zituen (barrez). Pertsona zoragarria da.

Peiremans taldearen jarraitzaile izan zarete?

E.G.: Bai, Peiremans eta Gorka Urbizuren jarraitzaile izandakoa naiz. Eta Gorka gertutik ezagutzeko aukera zirraragarria izan da. Oso gertukoa eta jatorra da, gainera.

D.F.: Peiremans taldeari baino gehiago, Berri Txarrak taldeari jarraitu diot.

Musikari, idazle eta kulturazale askoren topagune izan da Palentinoa urteetan. Gaur egun ere hala mantentzen da?

D.F.: Bai, hainbat sortzaile etortzen da tabernara. Hala ere, bezero guztiak berdin tratatzen ditugu, nor den begiratu barik.

E.G.: Lehenago, Landako Guneko edo Plateruneko zalapartatik irteteko etortzen ziren Palentinora, eta gaur egun ere hainbat sortzaileren topagune izaten jarraitzen du.

D.F.: Eskuahaldunak Eskultoreen Elkartekoak ere etortzen dira.

Baduzue kontatzeko moduko pasarterik?

E.G.: Pasarte asko izan dugu. Inoiz bat-batean sorturiko kontzertu pribatuak eman dituzte tabernaren aurrealdean, oso artista ezagunak eta ez horren ezagunak elkartuta, adibidez. Gogoan dut baita ere Pello Reparazek tabernan jarraitzaile mordoagaz topo egin zuenekoa; komunetik irteten ere ez zioten utzi ia.

D.F.: Giro polita sortzen da.

Tabernara sartu den zein artista duzue bereziki gogoan?

E.G.: Gatibuko Haimar Arejitak beti ematen dizkigu animoak.

D.F.: Aiora eta Piti, adibidez. Dena dela, orokorrean oso jatorrak dira denak.

